


PROGRAMA
EUSKARA

APIRILA MAIATZA EKAINA 2021



Bilbao

gizartea eta kultura
garaikidea

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

«Normaltasun berriari aurre egin behar diogu, ez
normaltasun zaharrera itzuliz -neoliberal eta basatia
baitzen-, baizik eta bitxikeria berriak asmatuz».

Damian Tabarovsky. Idazlea

2021-2020 Gutun Zuria.
Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdia



- 7 *Praktika artistikotik errealitatea prototipatzea*. Fernando Pérez. Azkuna Zentroko Zuzendaria
- 8 Egunerokotasuna Ana Laura Aláezen begiradaren bidez
- 12 Az Irratia jaio da, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko irratia
- 14 Sorkuntza garaikidearen loturak, elkarrizketak eta deribak

PROGRAMACIÓN

/Arte bisualak

- 18 *Mabi Revuelta. Acrómatica. Una Partida Inmortal*. Erakusketa
- 20 *Ana Laura Aláez. Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío*. Erakusketa
- 22 *Elena Aitzkoa. Lendia Song*. Erakusketa. Bat espazioa. Lantegia
- 24 *Abad Diseño, Tytti Thusberg eta Ekomodo*. DendAZ. This Is Basque Design / Diseinua
- 25 *Abana Bilbao, Elena Ciordia eta MR Laspiur*. DendAZ. This Is Basque Design / Diseinua
- 26 *Miriam Isasi. Resina, brea y glicerina*. Erakusketa. Galeria Mediateka
- 28 *Aimar Arriola Pablo Marterekin elkarrizketan. Forma desira*. Artes bisualak / Ikertzaile Az-Kidea
- 30 *Sra. Polaroidska. Emakume jakintsuen kontseilua*. Artista Az-Kideak / Topaketa

/Arte biziak

- 32 *Oscar Gómez Mata- L'Alakran Juan Lorienterekin. Makers*. Antzerkia / Artista Az-Kidea
- 34 *MDV Danza. Aireko arkitektoak (Alhóndiga)*. Dantza
- 36 *Eraeran + Radithor + Alvin Lucier-en In Memoriam Jon Higging + Testura*. Hotsetan. Azkuna Zentroko musika esperimentaleko eta soinu-arteko programa

/Zinema eta ikus-entzunezkoak

- 41 *Luis García Berlanga, XX. mendeko kronista*. Zinemateka
- 44 *Kinu #4: Andrés Duque*. Proiekzioak
- 46 *Laida Lertxundi. 8 Topaketa*. Zinema eta ikus-entzunezkoak / Artista Az-Kidea





- 48 FANT. Bilboko Zinemaldi Fantastikoa. Zinema
- 48 Zinemagileen artean. Emakumeek egindako zinemaren 10. karabana. Zinema
- 49 Bilbao Aurrera Zinebi 2020. Hautatutako proiektuen aurkezpena. Zinema

PROYECTOS DE CREACIÓN ARTÍSTICA

- 52 Aimar Arriola. *Forma desira*. Ikertzaile Az-Kidea
- 54 Isabel de Naverán. *Olatua buruan*. Ikertzaile Az-Kidea
- 56 Babestu: prozesuan dauden proiektuak. Babestu, sorkuntza garaikidea babesteko programa berezia
- 58 Artista eta Ikertzaile Az-Kideak
- 60 Artoteka. Arterako eguneroko espazioak. Lanean. Prozesuei laguntzeko programa Espacios cotidianos para el arte.
- 61 Kinu. Tractora Koop. E. Kolektibo Egoilarrak programa
- 62 Deialdiak eta egonaldiak 2021-2022

HEZKUNTZA PROGRAMA

- 66 Bitartekotzaren inguruan esperimintatzea eta prototipatzea
- 68 Gure ARTEan. Tailerrak
- 68 Rafael Martínez del Pozo. *Escuchando, hacia una música anterior a sí misma*. Musika esperimentaleko tailerra
- 69 Txakur Gorria. *Huts egite saiakerak*. Tailerra
- 69 Josune Urrutia. *Así me veo*. Tailerra

AZ

- 72 Azkuna Zentroko argitalpenak
- 76 dendAZ online: diseinurako eta artisautzarako leiho irekia, iraunkortasunarekin konprometitua

AGENDA

- 78 Agenda
- 85 Informazio orokorra
- 86 Azkuna Zentroa, espazio segurua





Praktika artistikotik errealitatea prototipatzea

Hiruhileko honetan, **Prototipoak. Forma Eszeniko Berrien Nazioarteko Topaketa** bienalaren edizio berria izango da, eta duela urtebete baino gehiago abian jarritako prozesu artistikoak aurkeztuko dira

Prototipoak topaketan, begirada desberdinak dituzten eta jatorri oso desberdinekoak diren artistek esperientzia berriak planteatzen dituzte, testuinguruaren espezifikotasunetik abiatuta. Forma Artistiko Berrien bidez egiten dute, beren kodeekin eta sorkuntza-denborekin, aldatzen diren agertoki eta formatuetan, errealitatearen hainbat alderdi auzitan jartzen duten lengoaia desberdinekin, errealitatea eraldatzeko aukerak zabaldu nahian.

Prototipoak zentzu askotan Zentroaren kultura-proposamenaren paradigma da. Lengoaia garaikideen sustapenean eta hedapenean oinarritutako programazioa du, eta artisten arteko eta artisten eta publikoen komunitateen arteko topaguneak irekitzen ditu.

Ana Laura Aláez artistaren **Kontzertu guztiak, gau guztiak, dena hutsik** lanaren kasua da, maiatzetik aurrera erakusketa-aretoan zabalduko dena.

Bea Espejok komisariatutako proiektuak artistaren ekoizpen berrienaren zati bat biltzen du, hasierako piezekin hizketan jarrita. Madrilgo CA2M zentroarekin batera ekoizitako erakusketa Azkuna Zentroko erakusketa-aretoa iritsiko da, hamar bat pieza argitaragaberekin eta erakusketa berri honetarako berariaz sortutako bi piezarekin.

eszenAZ arte eszenikoen denboraldiaren esparruan, **Oscar Gómez Mata Azkuna Zentroko artista AZkideak Makers** proiektua estreinatuko du apirilean, Juan

Loriente aktorearekin batera. Proposamen eszenikoak maitasuna, denbora eta argia bezalako gai klasikoak jorratzen ditu, filosofia, poetikoa eta komikoa nahasiz. Eta **Zinematekak** autore-zinearen ziklo berri bat irekiko du, **Luis García Berlangari** eskainia bere mendeurrenaren urtean, zeinak bat egiten duen 2021eko lehen hiruhilekoan proiektatutako **Pier Paolo Pasolini** zinemagilearen atzera begirakoarekin.

Azkuna Zentroari lotutako komunitate artistikoa eta ikertzailea handitu egin da: **Isabel de Naverán**ek kuradoreztza, edizioa eta idazketa gurutzatzen dituen proiektu bat landuko du; eta **Laida Lertxundi** artista bisualak ikus-entzunezko filmaketa birplanteatuko du ingurune natural batean kokatuta. Era berean, Zentroak aurrera jarraitzen du UPV/EHUrekin batera **Praktika artistiko eta sozialen masterra** sortzeko prozesuarekin, eta urte honen amaierarako garatuko da.

Latengia. Ideien laborategia espazioa sormen-irakinaldi betean dago. Hilabete hauetan, **sorkuntza artistikoari laguntzeko Babestu programa ezohikoaren** lehen deialdiko egoiliarretako batzuek erakutsiko dute beren prozesuen emaitza, **Bat espazioan** eta **Mediateka galerian**. **Komisario Berriak** programa bezala, aurten berpiztuko da, sorkuntza eta prozesuak bultzatzen eta sustatzen jarraitzeko plataforma duinak, denborak, baliabideak eta zaintzak eskainiz. Modu horretan soilik jarraitu ahal izango da praktika artistikotik errealitatea prototipatzen.

Egunerokotasuna Ana Laura Aláezen begiradaren bidez

Ana Laura Aláez (Bilbo, 1964) 'emozioen arkitekto' gisa definitzen du bere burua, bere bizitza eskultura bilakatzen duen norbait —itxuraz ezinbestez artistikoak ez diren baliabideak erabiltzen dituean ere bai—, eskultura eraldatzeko bitartekotzat hartzen duena. Aldarrikatzen du edertasuna ez dagoela estandarizazioan, desberdintasunean baizik, eta artea biziraupen-ariketa gisa hartzen du, non egunerokotasunaren zeinuak berrirakurtzen diren eta errealtate bizigarriago baten alde jartzen diren.

Maiatzaren 20tik aurrera, *Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío* (Kontzertu guztiak, gau guztiak, dena hutsik) erakusketa aurkeztuko dugu; *Bea*

Espejo da komisarioa, eta Centro de Arte Dos de Mayo, CA2M-rekin batera ekoitzi da. Erakusketak artistaren azken hiru hamarkadetako lana biltzen du, eta bere ekoizpenaren ikerketa zabaltzen du, gaur egungo panorama artistikoan egilerik nabarmenetako bat baita. *Ana Laura Aláez* 80ko hamarkadako euskal testuinguruan hezitako sortzailea da. Krisialdi sozial eta ekonomikoak, indarkeriaren gorakadak eta itxaropenik ezak markatutako garaia izan zen hura, bai eta emakumearen ikusezintasun bereziak ere eremu gehienetan, batez ere kulturean. Horiek horrela, artistak irudikapenaren kritika bat garatu du, bere klase, genero eta lekuagatik ezarritako estereotipo zurrunak auzitan jartzen dituen —eguneroko elementuak eta elementu

Inudia: CA2M. Ana Laura Aláez eta Bea Espejo. *Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío*. Inaugurazioa.



ARTISTAK LEHEN
EGOITZAN BAINO PIEZA
BERRI GEHIAGO BATU
DITU AZKUNA ZENTROKO
ERAKUSKETAN, ETA
DOKUMENTAZIO-GUNE
BAT ERE SORTU DU, BERE
SORMEN-PROZESUEN
ZATI BAT EZAGUTARAZI
NAHIAN.





Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío

eskultorikoak konbinatzen dituen ekoizpen baten bidez—.

Kontzertu guztiak, gau guztiak, dena hutsik erakusketak Ana Laura Aláezen ekoizpena zeharkatzen du, artistaren azken lanetako batzuk eta bere ibilbidearen hasierako beste batzuk bilduz. Erakusketa lau multzo tematikotan banatuta dago –Objektu eta luzapen zitalak; Eszitazioa eta hutsunea; Indarkeria eta zaurgarritasuna; Mitoa, emakumearen sexualitatea eta kamuflajeko ideologia–, eta obren arteko elkarriketa gisa planteatzen da, atzera begirako kontzeptutik aldenduz. Espazio bakoitzak pieza nagusi bat aurkezten du, hainbat obra multzoz inguratua, denbora linealeko irakurketa saihestuz, eta lan bakoitza gainerakoekin lotzen saiatuz, forma zatikatu horiek multzo berri bat osa dezaten. Bere garaian hartutako erabaki bakoitza berresteko ariketa bat baino gehiago, tresna berri bat dugu aurrean, erabaki horiek ikuspegi berri batean agertzen dituen.

Artistak 2009an egindako pieza baten izenburua hartzen du erakusketak, eta elementu giltzari bihurtzen da. Pandemiaren garaian esanahi literalagoa hartzen du ezinbestean, baina tituluak ekitaldiaren ondoko arrastoa ekartzen du gogora. Jenderik gabeko espazioak gogoratzen

ditu, hala nola musika elektronikoko klub batean argiak pizten eta apartekoa zirudien leku hori desegin egiten denekoa. Lehenagokoa eta gerokoa. Ilusioak eta itzaropenak, errealizazioen eta etsipenen aurrean. Komisarioak deskribatzen duenez, «bere izaeragatik, obra honek irakurketen geruza desberdinak biderkatzen ditu, eta konplexutasun-maila bat sortzen du, artistaren sormen-tonuari oso ondo egokitzen zaiona. Zarata izugarria sortzen duen isiltasuna bezala funtzionatzen du. Aláezen lanean izandako inflexio-une baten ondoren agertu zen, orduan bere begirada berri berritu baitzuen, bere ekoizpenaren jatorria itzuliz eta esperientzia beti batzen duen tresna bezala erabiltzeko ideia bueletatuz».

Artistak orain arte erakutsi gabeko hamar pieza gehitu ditu Azkuna Zentroko erakusketarako: eskultura ikonikoen berrinterpretazioak eta sortu berri dituen bi obra. Horien artean, artistak 90eko hamarkadatik gaur arte egin dituen obrak daude, hala nola *La Cortesana* (1992-2021), *Pulseras* (1993-2014), *Piel de naranja* (1995-2021), *Metal Lipsticks* (1999-2021), *Wonder Woman P.A* (1993), *No hables con extraños* (1989), *Braintree P.A* (2008), *Impostura* (2014), *Uñas rojas (revisited)* (1991-2021) eta *Loba* (2014).



Batzuk hasierako lanak dira, orduan eskulturan ardatzu baitzen gehienbat. Bere objektu eskultorikoetan era guztietako elementuak agertzen dira, ia beti erabilera pertsonalekoak, eta, askotan, sexu-karga eta umore- eta ironia-dosi batzuk gehitzen dizkie. Lan-ildo hori ikus daiteke, esaterako, *La cortesana* (1992-2021) piezan, zapatez, katez eta ileordeez osatua baitago. Erabiltzen dituen materialak eta prozesuak ere askotarikoak dira, adibidez, kakorratza *Wonder Woman P.A* (1993) piezan, josi-pasada *Piel de Naranja* (1995-2021) lanean eta latexa *Pantalón Preservativo* (1992-2021) obran.

Ana Laura Aláez eta 'ni' infinitu posibleen bilaketa

Ana Laura Aláez estatuko eszena artistikoko funtsezko artistetako bat da. Bere ibilbidea eta ekarpena saritu zituen Eusko Jaurlaritzak 2013ko Gure Artea sariarekin. Aláez 1992an ezagutarazi zen jendaurrean, *Superficie-n* (1992), Bartzelonako Joan Miró Fundazioaren 13. espazioan. Erakusketa horretan, nazioartean sona lortzeko pasaporte gisa erabiliko zuen pieza bat zegoen: *Mujeres sobre zapatos de plataforma*. New Yorken

egindako lan horrek kontzeptu eskultoriko berriak esploratzen ditu, bere ibilbide osoa markatuko duen bere praktikarekiko jarrera bital berriazko batetik abiatuta: 'ni' infinitu posibleen bilaketa, estudioerik eta baliabiderik gabe obra ekoizteko modu bat, edo artean emakumearen presentzia eskasa.

She Astronauts (1997), Bartzelonako Montcada Aretoan, autorearen ideia beste artista batzuen parte-hartzearekin diluitu zuen lehen instalazioa izan zen. Hortik aurrera, bere lana 'arte erlazionalaren' barruan sailkatu zuten.

2000. urtean, *Aláezek Dance & Disco* aurkeztu zuen MNCARSEko 1. Espazioan, Madrilen: klub autonomo bat museoaren barruan, Espainiako panorama artistikoko filia eta fobia handiak piztu zituen. Silvania bikote perutararekin, *Girls on Film* izenarekin, CD bat argitaratu zuen, ordura arte ekoiztiko bideo askoren ex profeso musika-bildumekin. 2004tik Ascii.disko musikari alemaniararekin kolaboratzen du.

2001ean, Veneziako 49. Bienaleko Espainiako Pabiloian, jatorrira itzultzeko beharra nabarmentzen zuten hiru instalazio erakutsi zituen. Desio hori askoz beranduago islatu zen, 2008an, eta modu irmoago

batean Eskultura Pabiloiarekin, MUSACen, Leónen. Urte hartan bertan, *Bridge of Light* pieza iraunkorra osatu zuen, Japoniako Towada Art Center-erako. Prozesu ez-linealekin artista batek bizitzan zehar izaten duen negoziatzeko eta adiskidetzeko espirituak eragin zuen *Impostura* (2014) erakusketa, Madrilgo Moisés Pérez de Albéniz galerian ikusgai egon zena. 2015ean, nabarmentzekoa da Donostiako Kalostran –artistek eta artistentzat emandako proiektu esperimental pedagogikoan– egindako jarduera. 2018an banakako bigarren erakusketa egin zuen bere sorterrian, Carreras Múgica galerian: *Resistencia en Bilbao*.

Museoetako erakusketen artean, hauek nabarmentzen dira: *The Real Royal Trip* (2003. PS1, MOMA. N.Y); *Hell Disco* (2004. Helsinki City Art Museum, Helsinki;

eta Centro Cultural de España, México); *Signale Der Kleidung* (2004. Podewil Center of Contemporary Art, Berlin); *Goodbye Horses-Kiss the Frog. The Art of Transformation* (2005. The National Museum of Art, Architecture and Design, Oslo); *Arquitectura de Sonido* (2006. Museo Banco de la República de Bogotá); *Incógnitas. Cartografías del Arte Contemporáneo en Euskadi* (2007. Guggenheim Bilbao Museoa).

Gaur egun, artista jatorria itzuli da, **Bea Espejok** azaldu bezala, «azken hogeita hamar urteetan bere obran azaldu diren gaien pitzaduren artean bilatzeko: gorputza idulki gisa, orrazia eskultura gisa, eskultura abesti gisa, gaua material gisa, identitatea gatazka gisa, azala jantzi gisa, inpostura aukera gisa. Elkarrizketa porotsu bat da, errepikapenean oinarritua, egiturak bukatu gabe daudela eta erresonantziek duten boterea nabarmentzen duena».



Erakusketako irudia

Erakusketaren izena:

Ana Laura Aláez. Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío (Kontzertu guztiak, gau guztiak, dena hutsik)

Komisarioa:

Bea Espejo

Egunak:

2021eko maiatzaren 13tik irailaren 26ra arte

Irekiera-ekitaldia:

Maiatzak 20, osteguna

Programa publikoa:

• **Bisita gidatuak**

Ostegun guztietan, 18:00etan eta 19:00etan

• **Topaketa: Ana Laura Aláez eta Bea Espejo Alicia San Juan-ekin**

Maiatzak 19, asteazkena. 18:30.

Auditorioa. Sarrera dohainik, alde zurretik izena

emanda azkunazentroa.eus-en, leku guztiak bete arte

Baliabideak:

Online audiodigida zerbitzua

Argitalpenak:

Erakusketaren katalogoa: Ana Laura Aláez. Kontzertu guztiak, gau guztiak, dena hutsik. Artistaren lana kokatzen duten oinarritzko testuak ditu, honako hauek eginak: Bea Espejo, Sonia Fernández Pan, María José Belver, Ángel Bados, Paul B. Preciado eta Ana Laura Aláez.


Katalogoa dendAZ. Azkuna Zentroko dendan edo dendaz.azkunazentroa.eus helbidean eros dezakezu.

Az Irratia jaio da, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko irratia

Azkuna Zentroaren programazioa kultura garaikidea zabaltzen eta maximizatzen duten formatu berrietara hedatzen da. [Az Irratia, Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoko](#) irratia martxan jartzearekin batera, Zentroak ahozkotasanaren aldeko apustua egiten du, pentsamendua eta hausnarketa artistikoa transmititzeko uhal gisa.

2019-2023 Programa Proiektuaren barruan, proposamenak jarraipena ematen dio 2018. eta 2020. urteen artean Kolektibo Egoiliarra Programaren barruan consonnik garatu zuen [consonni radio con Az](#) prototipoari. Epilogo eta giltzadura gisa, kultura-ekoizleak laguntza ematen du proiektu berri hau sortzeko.

[Az Irratia irratia](#) esperimental eta komunitarioa da, irratiaaren kontzepturik tradizionalenetik urrutiratua eta podcastingaren egungo formatura bideratua. Kultura esperimentatzeko modu garaikide gisa proiektatzen da, egungo praktika artistikoen inguruko soinu-sorkuntza eta hausnarketa bultzatuz. Zentroko programazio-ildoekin harremana duten atal eta gaiekin, baina, aldi berean, autonomiaz, sormen-proiektu gisa eta inguruko ahots eta soinuak eta kulturaren eta praktika artistikoen beste une batzuk berreskuratzeko bide gisa.





Fisikoki Atariko erdiko espazio batean kokatuta, soinu-leiho hau kanporantz irekitzen da, Zentroan lan egiten duen eta egoiliarra den testuinguru artistikoarekin elkartzeko espazio berri bat sortuz; eta gorde egiten da, Zentroko hormetatik eta hiritik harago hedatzen da, edukien artxibo, soinuen artxibo banku bihurtuz. Proiektua magazine formatuarekin esperimentatuz hasten da: ordubeteko iraupenaz, profesionalak zuzendutako atal independenteak ditu, eta streaming bidez eta Atarian emititzen da.

Zentroko konplizeei gonbit egiten diegu kontakizunak sortzera, soinu-bide berriak osatzera eta entzuteko uneak sortzera. Soinu-pilula hauek, berez, sormen kolektiboko ariketak ekarriko dituzte, alde batetik, irrtiaren–performancearen edo irrti-magazinaren tradizioa balioetsiz eta, aldi berean, gonbit eginez podcastingarekin lehen aldiz esperimentatzera hurbilduko diren beste ahots batzuei.

Nazioarteko izaera duen bertako irratia da Az Irratia. Haren narratibak eta konposizioak egunerokotasunetik entzun daitezke, planetako edozein puntutatik, horrela, muga geografikorik gabeko hurbiltasun-komunitatea sortuz.

Proiektu hau Walter Benjaminek irratia ulertzeko zuen modutik hurbil dago: ahotsa etxean jasotzen den gonbidatu gisa, irratia –filosofoaren ustez, bere hezkuntza-zereginetik bereizezina– antzerkia baino teknika arriskutsuagoa da, "jakintza publikoaren norabidean eta publikoa jakintzaren norabidean" mugiarazten baitu.

Sorkuntza garaikidearen loturak, elkarrizketak eta deribak

Artistak, komisarioak, kultura-eragileak... Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko programazioa diziplina desberdinetako pertsonen konplizitatearen emaitza da, haiek gure proposamenak balioesten eta aberasten baitituzte, era askotako ikusleen komunitateei zuzendutako ekarpenekin. Hiruhileko honetan gure artean izango ditugun proiektuak eta pertsonak erakutsiko ditugun hemen, aurten abian jarri ditugun elkarrizketen parte direnak.



Mabi Revuelta
Artista bisuala



Susana Blas
Arte garaikidearen komisarioa eta historialaria



Ana Laura Aláez
Artista bisuala



Bea espejo
Komisarioa eta arte kritikaria



Rosa Casado
Artista



Elsie Ansareo
Artista bisuala



Amalia Fernández
Performer



Maider López
Artista bisuala



Elena Aitzkoa
Artista performatiboa



Isabel de Naverán
Ikertzailea, editorea eta komisarioa. Ikertzaile Az-Kidea



José Ramón Ais
Artista bisuala



Diego Sologuren
Arkitektoa eta artista



Laida Lertxundi
Zinemagilea. Artista Az-Kidea



Miriam Isasi
Artista bisuala eta ikertzailea



Pablo Marte
Artista bisuala



Aimar Arriola
Komisarioa, editorea eta ikertzailea. Ikertzaile Az-Kidea



Oscar Gómez Mata
Aktorea, autorea, zuzendaria eta eszenografoa. Artista Az-Kidea



Juan Loriente
Aktorea



Sra. Polariska (María Ibarretxe y Alaitz Arenzana)
Artista performatiboak. Artista Az-Kideak



Raquel Meyers
Artista
Borja Crespo
Zuzendaria,
zinema-ekoizlea, idazlea
eta ilustradorea



Maider Aldasoro
Artista performativa



Karlos Martínez B.
Artista



**Sahatsa Jauregi
Azkarate**
Artista bisuala



Irati Inoriza
Artista bisuala



Eszter Katalin y Camila Téllez
Artistak bisualak



Iker Vázquez
Artista bisuala



Josuné Urrutia
Ilustratzailea



Eraeran
Musikariak



Mikel del Valle (MDV danza)
Koreografoa eta dantzaria



Adriana Uribealgo
ekomodo
Sorkuntza-Zuzendaria



**Rafael Martínez
del Pozo**
Musikaria



Radithor
Musikaria



Testura
Musika taldea



Tytti Thusberg
Diseinatzailea



Abad Diseño
Diseinatzaileak



Jaime de los Ríos
Artista



Alberto de la Hoz
Az Irratiko
Kordinadore teknikoa



Elena Ciordia
Diseinatzailea



Abana Bilbao
Diseinatzaileak



Andrés Duque
Zinemagilea



Ainara Elgoibar
Artista bisuala



Usue Arrieta
Artista bisuala



María R. Laspiur
Diseinatzailea

the 1990s, the number of people in the UK who are aged 65 and over has increased from 10.5 million to 13.5 million (19.5% of the population).

There is a growing awareness of the need to address the needs of older people, and the Government has set out a strategy for the 21st century in the White Paper on *Ageing Better* (Department of Health 1999). This sets out a vision of a society in which older people are able to live well, and to contribute to society. The White Paper sets out a number of key objectives, including:

• to improve the health and well-being of older people, and to reduce the burden of illness and disability;
• to improve the opportunities for older people to live well, and to contribute to society;
• to improve the support and services available to older people, and to ensure that they are accessible and of high quality.

The White Paper also sets out a number of key actions, including:

• to improve the health and well-being of older people, and to reduce the burden of illness and disability;
• to improve the opportunities for older people to live well, and to contribute to society;
• to improve the support and services available to older people, and to ensure that they are accessible and of high quality.

The White Paper also sets out a number of key actions, including:

• to improve the health and well-being of older people, and to reduce the burden of illness and disability;
• to improve the opportunities for older people to live well, and to contribute to society;
• to improve the support and services available to older people, and to ensure that they are accessible and of high quality.

The White Paper also sets out a number of key actions, including:

• to improve the health and well-being of older people, and to reduce the burden of illness and disability;
• to improve the opportunities for older people to live well, and to contribute to society;
• to improve the support and services available to older people, and to ensure that they are accessible and of high quality.

The White Paper also sets out a number of key actions, including:

• to improve the health and well-being of older people, and to reduce the burden of illness and disability;
• to improve the opportunities for older people to live well, and to contribute to society;
• to improve the support and services available to older people, and to ensure that they are accessible and of high quality.

PROGRAMAZIOA



Acromática
Una Partida Inmortal

ARTE GARAIKIDEA / ERAKUSKETA
URR. 14 > API. 11

Mabi Revuelta

*Acromática. Una Partida Inmortal
(Akromatikoa. Partida Hilezkorra)*

Komisarioa: Susana Blas

Acromática. Una Partida Inmortal (Akromatikoa. Partida Hilezkorra) erakusketak **Mabi Revuelta** artistaren ibilbidea berrikusten du, eta, aldi berean, erakusketa honetarako ekoitzi duen *Acromática* azken lana du ikusgai. Arte garaikideko komisario eta historialari **Susana Blas** da erakusketaren komisarioa

Xake-jokoaren dramaturgiaren bidez antolatua, ibilbidea 'Irekierarekin' hasten da. Lehen espazio horretan, *Natura hila* perla beltzekin instalazioa dago, erakusketaren tonu poetikoa markatzen duen pieza eskultoriko berrikusia.

'Joko erdia' espazioan, *Acromática* osatzen duten obrak ikusiko ditugu, historiako xake-partidarik artistikoenetako batean inspiratuak: Adolf Anderssen eta Lionel Kieseritzkyren artean 1851n jokaturako *Partida Hilezkorrean*.

Serie honekin *Mabi Revueltak* xakea eta haren arauak hartzen ditu erreferentziatuz, «eskulturaren, zinemaren, dantza garaikidearen, musikaren eta idazketaren bidez, jokoaren erregearen kontakizuna egiten saiatzeko, haren mugetatik hara jotuz, metafora artistiko, intelektual, beliko eta bitalen bidez artikulatuta».

Azken espazioan, 'Partida amaiera' izenekoan, *Denboraren lerroa dago*: artistaren ibilbidearen laburpena, xakearen lau arotan oinarritua: erromantikoa, zientifikoa, hipermodernoa eta dinamikoa.

MABI REVUELTA. (Bilbao, 1967) 2016ko Gure Artea saria. Arte Ederrak ikasi zituen UPV/EHU (1990), eta harrezkero bere lana erakusten hasi zen estatuko eta nazioarteko galeria, arte-zentro, azoka eta museoetan; eta, aldi berean jardun du artista plastiko gisa, irakaskuntzan eta artearen pedagogia berriei buruzko ikerkuntzan. 2000tik 2003ra arte, New Yorken bizi izan zen, eta International Studio & Curatorial Program-en osatu zuen bere prestakuntza, Marcelino Botín Fundazioak 2003an emandako bekari esker. BBVA Fundazioaren Leonardo Beka jaso zuen 2016. urtean, Akromatikoa garatzeko, artistak Azkuna Zentroan duen erakusketa honi titulua ematen dion proiektua.

SUSANA BLAS BRUNEL. (Madril, 1969) Arte garaikidearen komisarioa eta historialaria. Ikus-entzunezko sorkuntzan espezializatuta, *Metropolis (tve2)* telebistako kultura-espazioaren gidolaria da 1999tik. Gaur egungo arteari eta feminismoei buruzko hainbat argitalpenetan idazten du, eta gai horiei buruzko hainbat ikastaro eta master eman ditu. GURTARRILABerdintasunaren aldeko proiektuen kudeatzailearen kategorian, MAV saria (Mujeres en las ARTE BISUALAK) jaso du (2016), eta Blanco, Negro eta Magenta saria (2017). MAV-eko Aholkularitza Kontseiluko kidea, eta Cuencako Arte Ederren Unibertsitateko ARES proiektuko ikertzailea da. Hainbat bideo- eta erakusketa-ziklo komisariatatu ditu.

«ADOLF ANDERSSENEK ETA LIONEL KIESERITZKYK 1851N JOKATU ZUTEN PARTIDA BEZALA, ARTEA HILEZKORRA DELA USTE DUT, EZIN BAITA KULTURATIK ETA GIZARTETIK BEREIZI. HORREGATIK, NIRE USTEZ, BEHAR-BEHARREZKO ONDASUNA DA». **MABI REVUELTA**

Urriak 14 > Urtarrilak 24

Erakusketa Aretoa

Ordutegia

Asteartetik igandera:
11:00 - 20:00

Bisita gidatuak (30'):

Ostegunero: 18:00 eta 19:00
Sarrera dohainik aurrez izena emanda:

Az Info / 944 014 014

Gehienez: 6 pertsona*

*Bisita bakoitzeko pertsonakopurua aldatu egin daiteke pandemia kontrolatzeko eta bakoitzean hartzen diren neurrien arabera. Informazio gehiago: azkunazentroa.eus

Koprodukzioa:



PROMOCIÓN DEL ARTE

Acromática. Una Partida Inmortal Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren eta Tabacalera Promoción del Arte-ren (Madril) arteko koprodukzioa da, eta Madrilen La Principal-en egongo da erakusgai (2021).

Langutzailea:





ARTE BISUALAK / ERAKUSKETA

MAI. 20 > IRA. 26

Ana Laura Aláez

*Todos los conciertos, todas las noches,
todo vacío (Kontzertu guztiak, gau
guztiak, dena hutsik)*

Komisarioa: Bea Espejo

Maiatzaren 20an inauguratuko da **Ana Laura Aláez** artistaren *Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío* (Kontzertu guztiak, gau guztiak, dena hutsik) erakusketa, **Bea Espejo** komisariatuta. Aláezen jaioterrian aurkeztzen den tamaina honetako lehen erakusketa monografikoa da, eta bertan bere azken lanetako batzuk erakusten dira hasierako beste lan batzuekin hizketan.

Ana Laura Aláezek Euskal Herrian jaso zuen prestakuntza, 80ko hamarkadaren bigarren zatian. Lehen lanek aurreko belaunaldiak -'Euskal Eskultura Berria' izenekoak- planteatutako gaiak asimilatzekeo prozesu bat adierazten dute, eta, aldi berean, genero-ikuspegiari lotutako elementu zuzentzaileak txertatzen dituzte, material eta estrategia prozesualak erabiliz, tradizioz eskultorikotzat jotakoak alde batera utzita.

Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío erakusketak bira bat ematea eta sorburura, abiaburura jotzea proposatzen du, azken hogeita hamar urteetan artistaren obran azaldu diren gaien arrakalatan lan egiteko: gorputza idulki gisa, idulkia eskultura gisa, eskultura kanta gisa, gaua material gisa, identitatea gatazka gisa, inpostura aukera gisa. Erakusketaren izenburua instalazioetako batetik hartuta dago, eta ekitaldi bateko arrasto berezkoa ekartzen du gogora, ustezko denbora ez-emankor horrekin, errealtazioen eta desengainuen aurrean ilusioak eta itxaropenak aurkeztuz.

ANA LAURA ALÁEZ. (Bilbao, 1964) Gure Artea 2013 sariaren irabazlea. Nazioarteko bienal hauetan parte hartu du: Istanbulgo 5. Bienala, Turkia, 1997; Veneziako 48. Bienala, Italia, 1999; Busango 2. eta 3. Bienala, Korea, 2000 eta 2004; Buenos Airesko Bienala, Argentina, 2001; Veneziako 49. Bienaleko Espainiako Pabiloia, 2001. Erakusketak: Dance & Disco, Espacio 1, MNCARS, Madril; Beauty Cabinet Prototype, Palais de Tokyo, Paris; Hell Disco, Helsinki City Art Museum, Finlandia; Pabellón de escultura, Musac, León; Bridge of Light, 2008, Towada Art Center-eko pieza iraunkorra, Towada City, Japonia.

BEA ESPEJO arte-kritikaria eta komisarioa da. Artearen Historian lizentziatu zen Bartzelonako Unibertsitatean, eta Arte eta Komunikazio Kritikako Masterra ikasi zuen Gironako Unibertsitatean, Madrilgo Erkidegoko Madril 45 Arte Bisualen Programako zuzendaria da, eta El País egunkariako Babelia gehigarriko arte-arduraduna ere bai. 2007an arte-kritikaren GAC Saria jaso zuen eta 2022rako Veneziako Bienaleko Espainiako Pabiloia prestatzen ari da.

Erakusketaren katalogo hiruledunak Ana Laura Aláezen testuak ditu, beste ahots batzuekin tartekatuta: Bea Espejo, Paul B. Preciado, Ángel Bados, Maria José Belbel eta Sonia Fernández Pan. **dendAZ.** **This is basque design** saltokian eta helbide honetan dago salgai: azkunazentroa.eus

ANA LAURA ALÁEZ,
GAUR EGUNGO
PANORAMA
ESTETIKOAN GEHIEN
NABARMENDU DEN
GURE ARTISTETAKO
BAT DA, ETA HIZKETAN
JARTZEN DITU BERE
AZKEN LANAK BERE
HASIERAKO LAN
BATZUEKIN.

Maiazak 20 > irailak 26

Erakusketa Aretoa
Informazio gehiago: 8. orr.

Ordutegia

Astelehenetik igandera,
11:00etatik 19:00etara.

Bisita gidatuak (30'):

Ostegun guztietan, 18:00etan eta
19:00etan.

Sarrera dohainik, aurrez izena
emanez gero:

Az Info / 944 014 014

Gehienez: 6 pertsona*

*Bisita bakoitzeko pertsona-kopurua aldatu egin daiteke pandemia kontrolatzeko une bakoitzean hartzen diren neurrien arabera. Informazio gehiago: azkunazentroa.eus

Programa publikoa

Topaketa: Ana Laura Aláez
eta Bea Espejo Alicia San
Juan-ekin

Maiatzaren 19an, asteazkena
18:30. Auditorioa Sarrera
dohainik, alde zuretik izena
emanda azkunazentroa.eus-en,
leku guztiak bete arte

Koprodukzioa:

CA2M 

Centro de Arte Dos de Mayo
Comunidad de Madrid

Kontzertu guztiak, gau guztiak, dena hutsik Azkuna Zentroa-Alhondiga Bilbao eta Centro de Arte Dos de Mayo, CA2M-ren (Madril) arteko koprodukzioa da, eta 2019ko azaroa eta 2020ko urtarrila bitartean Madrilen egon zen ikusgai.

ARTE BISUALAK / ERAKUSKETA / BAT ESPAZIOA. LANTEGIA
API. 22 > UZT. 4

Elena Aitzkoa

Lendia Song

ELENA AITZKOA MATERIAREN
KONFIGURAZIO POETIKOAN
JARTZEN DITU FOKUA ETA
SORMEN-ENERGIA, ETA
EDERTASUNA IZAKIEN ARTEKO
LOTURA-ELEMENTU GISA
HARTZEN DU.



Lendia Song

Elena Aitzkoa artistak *Lendia song* lana aurkeztuko du, sorkuntza garaikideari laguntzeko Babestu programaren barruan, aintzira baten barne-miaketatik sortutako proiektua. Izaera beti performatikoarekin, sorkuntza honen abenturak lankidetzaren eta bakardade-lekuak zeharkatzen ditu. Ahots- eta paisaia-grabazioen bidez igarotzen ditu espazioak, gorputz-eskultura bihurtu arte. Abestiarekin elkartzea.

Haren sorkuntza-lanak ekosistema heterogeneo bat dira, eta ingurune gutxi-asko hurbileko elementu fisikoak eta emozionalak eta bizi-esperientziak dituzte oinarrian. Materiaren konfigurazio poetikoan jartzen du fokua eta sormen-energia, eta edertasuna hartzen du izakien arteko lotura-elementu gisa.


Lendia Song

Sakonera. Ibilbidea. Hutsunea.
Mezua. Jatorria. Besoak.
Iluntasuna. Pitzadura. Betazalak

Eskultura
aintzira bat

Kantua
haitzulo bat

Irudia
Mundu baten affairea



ELENA AITZKOA (Apodaka, 1984): Bestek beste, eskulturan, marrazketan, poesian eta performancean eta filmak egiten aritzen da.

Azken proiektuen artean, hauek nabarmentzen dira: Zarza Corazón (2019), Valladolideko Museo Patio Herreriano; *Paraiso Terrenal* (2019) poemen eta txistuen biniloa; *Nuestro amor nació en la Edad Media* (2018) filma, eta *Headscarfs close to the Ground* performanceen zikloa, Oslo Pilot-en esparruan egina (2016). Kolektiboki eta performancearen esparruan, nazioartean erakutsi du bere lana, herrialde hauetan: Ingalaterra, Italia, Japonia, Txina, AEBak, Portugal, Norvegia eta Suedia.

////////////////////////////////////

Erakusketa:
Apirilak 22 > Uztailak 4

16:00 - 20:00h
Bat espazioa. Lantegia

Sarrera dohainik, leku guztiak bete arte

////////////////////////////////////

 @aitzkoa

Elena Aitzkoa-k *Lendia Song* proiektua garatu du Babesturen esparruan. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren sorkuntza garaikideari laguntzeko aparteko deialdian.

Abad Diseño, Tytti Thusberg eta Ekomodo

Diseinua eta ekonomia zirkularra

Topaketa

Bestelako moldeak egiteko, bestelako moldeak erosteko. Ekonomia zirkularrak produkzio- eta kontsumo-metodo bat proposatzen du, baliabide materialak ahalik eta gehien aprobetxatzeko, eta diseinua abiapuntutzat hartuta. [Euskal DiseinuAZ](#) programaren barruan, hiru proiektu paradigmatico aurkezten dira, dendAZ. This is Basque Design komunitatearen parte direnak.

Abad Diseño. Biribil

[Abad Diseño](#) *Biribil* proiektua jarri du martxan, artisautzaren, maker munduaren eta industriaren arteko ekoizpen-modu berriak aztertzen dituena. Proiektua aurkezteaz gain, diseinatzaileek diseinu irekiko performance batzuk egingo dituzte jendaurrean, eta [Ontzia](#) prototipoa eraikiko dute haietan. Estudioko besaulki bat da Ontzia, edukiontzi batetik sortua, hala edukitzailearekin nola edukiarekin. *Biribil* proiektuak Bilbao Aurrera programaren babesa du.

Tytti Thusberg. Slowbag

[Tytti Thusberg](#), Donostian bizi den artista eta diseinatzaile finlandiarra, emozio jasagarriak proposatzen ditu moda ekologikoko diseinuen bidez. Bere sorkuntzetan, gogoeta egiten du kontsumoari, modari eta identitate femeninoari buruz, segurtasun-uhalekin birziklatuekin egindako *Slowbag* poltsen lerroan islatzen den bezala.

Adriana Uribesalgo. Ekomodo

Eko-REC da birziklatzeaz gain automobilgintzarako, elikadurarako (ontziak) edo ehungintzarako produktu bihurtzen duen Europako industria-enpresa bakarra. Hainbat urtetako ikerketaren eta I+G proiektu askoren ondoren, gehiago itxi du iraunkortasunaren zirkulua, ehun hori eguneroko produktu bihurtu baitu, diseinuaren eta funtzionaltasunaren aldeko apustua eginez.



Proiektuen aurkezpena

[Osteguna, apirilak 22](#)

18:30

Lantegia 1

Sarrera dohainik
gonbidapenarekin (jaso Az
Infon), eserleku guztiak bete arte

Performancea Biribilen eskutik

[Ostirala, apirilak 23](#)

15:00etatik 20:30era

[larunbata, apirilak](#)

9:00etatik 15:00etara

Kulturen Ataria

Sarrera dohainik



 [byabad.com](#)

 [tyttithusberg.com](#)

 [ekomodo.eus](#)



EIDE
EUSKAL
DISEINUA



Abad Diseño



Tytti Thusberg



Adriana Uribesalgo

[Euskal DiseinuAZ](#) publiko eta diseinuaren arteko lotune gisa proiektatzen da, sorkuntza-prozesuen eta artisau-ekoizpeneko tekniken inguruan jarduteko.

Abana Bilbao, Elena Ciordia eta MR Laspiur

Estilo bat sortzeko inspirazioak

Topaketa

Eraz ezagutzeko moduko berezko estiloa sortzea erronka bat da diseinatzaileentzat eta sortzaileentzat. [Euskal DiseinuAZ](#)en topaketa honetan, artista gonbidatuek aukera izango dute inspirazioaren eta diseinuaren bidez beren estiloa sortzeko jarraitu duten prozesua partekatzeko.

Abana Bilbao

Abana Bilbao –[Lucas Abajo](#) eta [Laxmi Nazabal](#)– altzari garaikideen editoreak berezko nortasuna duten altzariak eta osagarriak diseinatzeko eta egiten ditu, bertako materialen inspirazioak markatuta. Atlantiko estiloan inspiratuta, itsas jatorri argiarekin, beren produktuak soilak dira, dotoreak, sendoak, lerro biribilekoak, akabera naturalekoak eta nabarmenak ez diren kolore leunekoak.

Elena Ciordia

Emakume errealak eta aktiboak dira [Elena Ciordia](#) artistaren inspirazioa. Bere lanetan, ilustrazioa eta era askotako objektuen lanketa uzartzen ditu, hala nola kamiseta, paperzapi, papergaineko, postal eta poltsena, eta ahalik eta gehien zaintzen ditu beti organikoak edo jatorri birziklatukoak diren materialak. Objektuak irudiztatzen dituzten irudiak jatorrizko akuareletan oinarrituta daude eta izaera berria ematen diete.

MR Laspiur

[Maria R. Laspiur](#) artista eta moda-diseinatzailea eta [Jaime A. Limousin](#) diseinugile eta musikaria dira [MR Laspiur](#). Duela pare bat urte, Mariaren lan artistikoan oinarritutako 3Dko bitxiaren bilduma bat sortzeko abenturan murgildu ziren. Arte, diseinu eta teknologia berrien eta fantasiazko botanikaren arteko fusio horretatik sortzen dira orratz, paparreko eta lepokoaren bildumak, baita zetazko zapiak ere.



Abana Bilbao



Elena Ciordia



Maria R. Laspiur



Euskal DiseinuaAZ Topaketa

Ekainak 8, asteartea

18:30

Lantegia 1

Sarrera dohainik
gonbidapenarekin (jaso Az
Infon), eserleku guztiak bete arte



 abanabilbao.com

 elenaciordia.com

 mrlaspiur.com

 **Bizkaia**
bcz

**EIDE
EUSKAL
DISEINUA**

ARTE BISUALAK / ERAKUSKETA / GALERIA MEDIATEKA
MAI. 27 > IRA. 26

Miriam Isasi

*Resina, brea y glicerina (Erretxina,
brea eta glizerina)*

MIRIAM ISASIK ETNOBOTANIKARA
HURBILTZEN GAITU LENGOAIA PLASTIKO
BATEKIN, FORMATU ESKULTORIKOA
SORTZEN DUTEN GLIZERINA, TREMENTINA,
ERRETXINAK EDO BREA BEZALAKO
MATERIALEN BIDEZ.



Erretxina, brea eta glizerina

Miriam Isasi artista bisualak *Resina, brea y glicerina* proiektuaren emaitza aurkezten du, paisaiaren identitateari lotutako ikerketa bat, etnobotanikara lengoiaia plastiko batetik hurbiltzeko, gure testuingurua ulertzeko kontzeptu natural gisa.

Sendabelarren eta haien sistema immunologikoen erabileratik abiatuta, proiektua konifero-basoetan hasten da, arroka-erretxina hari gidari gisa hartuta proiektuaren garapenean. Planeta metalikoen bidez, kontzeptu alkimiko gisa, hainbat eskultura landu dira, landareen zezidio-forma desberdinetan oinarrituta. Artista lanean hasi da kontzeptu horrekin eta instalazio honetan presentzia izatea nahi izan du. Transmutazio-elementuak, magiara, bitxira, biziraupen-kapsuletara edo planeta-sistemetara eramaten gaituztenak.

Garapen-prozesuan, Miriam Isasik sakon ikertu ditu landareen eta petrikiloen praktika sendatzailearen arteko loturak, baliabide naturalen inguruko herri-kultura eta tradizioa, eta landareen erabilera eta botanikatik egindako azterketa teknikoagoa ere bai.

Artistak Babesturen esparruan egin du lan hau. Azkuna Zentroak [sorkuntza garaikideari laguntzeko duen programa](#) berezia da [Babestu](#), 2020an abian jarritakoa.

////////////////////////////////////

Maiatzak 27 > Irailak 26

10:00 - 20:00

Astelehenetik larunbatera

10:00 - 14:00

Igandeak

Galeria Mediateka BBK.

Sarrera dohainik, leku guztiak bete arte

////////////////////////////////////

 miriamisasi.com

 [@miriamisasioficial](https://www.instagram.com/miriamisasioficial)



MIRIAM ISASI Arte Ederretan doktorea da EHU/UPVtik, eta Mexikoko UNAMen egin du nazioarteko egonaldia. Ikuspuntu garaikidean kokatuta, sortzen duen diskurtsoa eraikitzeko, hainbat arlori egiten die keinu: antropologiari, historiari, aktibismoari, paisaiari eta memoriari. Bakarkako erakusketak egin ditu


MUSACen, Montehermoson Kulturunean, Buenos Airesko C.C. Floreal Gorinin, Irun Factoryn, Mexiko Hiriko Casa Galerian eta BilbaoArte Fundazioan, besteak beste. Isasirentzat, erakusketa bakoitzak dakar espazioarekiko elkarrizketa eta proiektu bakoitzerako egindako ikerketaren sintesia. Erakusketa kolektiboetan parte hartu du: ARTIUM, Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao, Erromako Espainiako Akademia, San Fernando Akademia, Bilboko Guggenheim Museoa, Torontoko Doris McCarthy Gallery, HUARTE Arte Garaikideko Zentroa, Burgosko [CAB] eta Donostiako San Telmo Museoa.

Aimar Arriola Pablo Marterekin elkarrizketan

Forma desira

AIMAR ARRIOLAREKIN HIZKETAN,
PABLO MARTE ARTISTAK JORRATZEN
ARI DEN GAI BATZUK AZTERTUKO
DITU, HALA NOLA PASIBOTASUNA,
GELDOTASUNA, INTIMITATEA ETA
HAREN DISTANTZIAK

Una fuerte imaginación genera acontecimiento o Las ideas sobre las cosas



Forma desira lanaren barruan, hau da, **Aimar Arriola** komisarioak artista AZkide gisa garatzen duen ikerketa-proiektuan, **Pablo Marte** artista, idazle eta ikertzaileak *Una fuerte imaginación genera acontecimiento o Las ideas sobre las cosas* izeneko bere lana aurkeztuko du maiatzaren 13an, **Aimar Arriola**rekin batera. Gainera, *Forma desira bat* lanean izandako parte-hartze gisa, **Pablo Martek** lan-dinamika irekia aurkeztuko du maiatzaren 11 eta 12an, proiektuan interesa duten guztiei zabalik.

Pablo Marte Irudimen sendoak gertaera sortzen du edo Gauzei buruzko ideiak

Joan den udan artistak egun batzuk eman zituen Frantziako Dordoina haranetik. Montaigneren gaztelua bisitatu nahi zuen. Irakurria zuen Michel de Montaignek saiakera modernoa asmatu zuen dorrearen goialdean ikus zitezkeela filosofoak sabaiko habeetan oroigarri gisa idatzi zituen esaldiak, grekoz eta latinez. Artistak inskripzio zehatz bat bilatzen zuen, oso hurbil sentitzen baitzuen: Fortis imaginatio generat casum (Irudimen sendoak gertaera sortzen du). Baina han, habe haien azpian, ez zuen aurkitu. Beste hau aurkitu zuen berriz:

ΤΑΡΑΣΣΕΙ ΤΟΥΣ ΑΝΘΡΩΠΟΥΣ ΟΥ ΤΑ ΠΡΑΓΜΑΤΑ ΑΔΔΑ ΤΑ ΠΕΡΙ ΤΩΝ ΠΡΑΓΜΑΤΩΝ ΔΟΓΜΑΤΑ

(Giza oinazearen kausak: ez gauzak, gauzei buruzko ideiak baizik).

Bi esaldi horien artean, han-hemenka ibiltzeko espazio bat zabaltzen da, non, pasibotasuna, geldotasuna, intimitatea eta haren distantziak lantzen ari den artistak «egitura plurinarratiboa» planteatuko duen, lirikaren eta zori objektiboaren arteko bilera.



PABLO MARTE (Cádiz, 1975) artista, idazlea eta ikertzailea da. Zinema eta telebista errealizazioan graduatua Bartzelonako Ikus-entzunezkoen Udal Eskolan eta Arte Ederretan

lizentziaduna Bartzelonako Unibertsitatean. Lana erakutsi du, besteak beste, toki hauetan: C3A (Kordoba), BilbaoArte Fundazioa (Bilbo), Galería Carreras Múgica (Bilbo), HANGAR (Lisboa), Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao (Bilbo), Tabakalera (Donostia), Kadist Art Foundation (Paris) eta Artium (Gasteiz). Halaber, *Again*, *against* (2013) antzezlanaren eta *Pretty Woman* (2015) liburuaren egilea da, biak Consonnik ekoiztiak



Lan-dinamika Pablo Marterekin
Maiatzak 11 eta 12
Asteartea eta asteazkena
Lantegia 1

Informazioa eta izen-emateak azkunazentroa.eus webgunean

Aimar Arriola eta Pablo Marteren arteko elkarrizketa
Maiatzak 13, osteguna

Maiatzak 13, osteguna
18:30
Lantegia 1

Sarrera dohainik, aldez aurretik izena emanda azkunazentroa.eus helbidean, leku guztiak bete arte



ARTE BISUALAK / TOPAKETA EKA. 22 (astr.)

Sra. Polaroiska. Artista AZ-Kideak

Emakume jakintsuen kontseilua

SRA. POLAROISKAK
KOADERNO BATEAN LAN
EGITEN DU. BERTAN,
PARTEKATUTAKO
GONBIDATUEN JAKINDURIA
BILTZEN DA, ARTISTA BATZUEN
KONTAKIZUN GRAFIKOEKIN
BATERA.



María Ibarretxe eta Alaitz Arezana. Emakume jakintsuen kontseilua

Sra. Polaroiskak (Alaitz Arenzana eta Maria Ibarretxe), Azkuna Zentroko artista AZ-Kideek beste bi topaketa proposatu dituzte hiruhileko honetan, Consejo de sabias proiektuaren barruan. Elkarrizketa hauen bidez, gonbidatutako emakumeek beren bizi- eta lanbide-esperientziak transmititzen eta partekatzen dituzte, eta erreferente gisa agertzen dira.

Alde publiko horrekin batera, Sra. Polaroiska koaderno baten argitalpenean ari da lanean. Bertan, gonbidatutako emakumeek partekatutako jakinduria jasoko da, zikloko saioetan [Abigail Lazkoz](#), [Conxita Herrero](#), [Bea Aparicio](#), [Juana García](#) eta [Naiara Goikoetxea](#) artistek sortu dituzten kontakizun grafikoekin batera.

Saioetan jakintsu hauek hartu dute parte orain arte: [Dolores Juliano](#) gizarte-antropologoa, Argentinan jaioa (1932) eta Bartzelonan erbesteratua Videlaren estatu-kolpearen ondoren; [Amaia Lasa](#), poesia euskaraz idatzi zuen lehen emakumeetako bat; [Garbiñe Mendizabal](#), genero-berdintasunerako aholkularia eta espezialista; [Luisa Menéndez](#), Ongi Etorri Errefuxiatuak Bizkaiko Plataformako ekintzailea; [Adelina Moya](#), Historian doktorea eta Bilboko Arte Ederren Fakultateko irakasle titularra; eta, Arantxa Urretabizkaia, idazlea eta euskaltzaina. Hurrengo gonbidatuen izenak web-orriaren bidez jakinaraziko dira.

Consejo de sabias proiektua bat dator Sra. Polaroiska azken urteotan garatzen ari den lan-ildoarekin, zeina bereziki erreferenteak sortzera eta ahalduntzera bideratzen baita, genero-ikuspegitik.

////////////////////////////////////

Ekainak 22, asteartea

18:30

Lantegia 1

Sarrera dohainik, aurrez azkunazentroa.eus webgunean izena emanda, leku guztiak bete arte

////////////////////////////////////

 cargocollective.com/srapolaroiska

 [sra polaroiska](#)



MARIA IBARRETXE eta
ALAITZ ARENZANAK

eratzten dute **SRA.**

POLAROISKA kolektibo
artistikoa. Beren obrak zinema
esperimental, ekintzako artea,

eta sorkuntza eszenikoa eta koreografikoa ditu ardatz. 2017an Gure Artea saria irabazi zuten, sorkuntzan egindako jarduerarengatik, eta nazioarteko arte-zentro eta jaialdi askotan erakutsi dituzte beren pieza eszenikoak eta ikus-entzunezkoak: Artium Museoa, Reina Sofía Museoa, Guggenheim Museoa, Stockholmeko Cervantes Institutua, Manchester, Parisko Festival des Cinémas Différents, Casa Encendida, Bilbao Arte Fundazioa, eta abar.

ARTE BIZIAK / ANTZERKIA **API. 15 ETA 16** (ostg. eta ostr.)

eszenAZ

Azkuna Zentroko
arte eszenikoen
denboraldia
2020-2021

Oscar Gómez Mata- L'Alakran Juan Lorienterekin

Makers

MAKERSEK MAITASUNA, DENBORA ETA ARGIA
BEZALAKO GAI KLASIKOAK JORRATZEN DITU,
UMORE HUNKIGARRIAREKIN NAHASTUTA.
HORRELA, BESTE IKUSPEGI BAT EMATEN DIGU ERTZ
LAUSOAK ETA ZALANTZAZKOAK DITUEN GARAI
HAUSKORTU HONEN EGUNEROKOTASUNARI BURUZ.



Oscar Gómez Mata aktore eta eszenografoak, Juan Loriente, *Makers*, aktorearekin batera, Azkuna Zentroko artista AZkide gisa egindako proiektuaren emaitza den lana estreinatuko du Euskadin.

Argiari, denborari eta maitasunari buruzko lana da *Makers*, eta gainezkatze komikoaren eta emozio-euspenaren artean egiten du bidaia, zentzugabekeriaren eta egiairen artean. Ikuskizun honek poetikoa eta filosofikoa nahasten ditu, bizirik dirautenentzako eskuliburu moduko batean, eta errealitatean dugun iragaitari irtenbideak ematen saiatzen da.

Makers-en funtsezko eginkizunetik sortzen da pieza: argia egiteko ikertzea. «Detektibeak gara, sentipenaren azpian hautematen dena bilatzen, errealitateari irtenbide poetikoa aurkitzen saiatzen gara», azaldu du Azkuna Zentroko artista AZkideak. Ondoriozko ikuskizunean, «bikote komiko» honek gai klasikoak jorratzen ditu, hala nola maitasuna, denbora eta argia, umore hunkigarriarekin nahasita. Horrela, beste ikuspegi bat ematen digute ertz lausoak eta zalantzaak dituen garai hauskortu honen egunerokotasunari buruz.

Sortzaileak iazko urtearen hasieran hasi ziren proposamen eszeniko hau lantzen. Óscar Gómez Matak gogora ekartzen duenez, prozesu «gorabeheratsua izan da, 2020an gertatu den gutzia bezala». Denbora horretan, «entseguko asteak bertan behera utzi behar izan ditugu, egutegiko beste egun batzuetara eraman, eta gure lana maker-aren esaerara egokitu behar izan dugu: Daukagunarekin konpondu», esan du koreografoak.

Proposamen eszenikoan bereizten ditu, batetik, alde epikoena, non antzerkia «espioitza-modu bat den, mundua zaintzeko ikerketa-modu bat», eta, bestetik, alderik intimoena, «sentimenaren azpian ezkutatuta dagoen sentiberatasuna hautematen saiatuz». Óscar Gómez Matak zuzentzen duen *L'Alakran* konpainiaren lanen ildoko ikuskizuna.

Horrela, maker-ek protokoloak sortzen dituzte errealitatea zelatatzeko. «Gainjarritako geruzen istorio bat da obra, hostoak kentzen dizkiogu egiazkotzat jotzen dugunari, sentitzea espero ez genuena aurkitzeko». Makers-en «ustekabea eta susmoa dago. Maker-en jarrera egokia Daniel Innerarityren (filosofoa) esaldi honetan dago definituta: "...errealitatea konplexua da, eta norbaitek modu bitarrean planteatzen duenean, susmoa hartzeko beharra dugu"».

OSCAR GÓMEZ MATA.

Aktorea, zuzendaria, egilea eta eszenografoa da. Espainian hasi zen antzerki-jardueretan, eta 1987an Legaleón-T konpainiaren sortzaile-kide izanik, ikuskizunak sortu zituen horiekin 1996ra arte. 1997an, L'Alakran konpainia sortu zuen Genevan, eta zuzendaritza, sorkuntza, dramaturgia eta zenbait ikuskizunetako testuak egin ditu bertan. 2013. urteaz goerotik, arauzko irakaslea

da Manufacture-n, Suitzako frantseseko antzerki eskolan. (HETSR) Suitzako antzerkiko sari nazionala 2018an.

JUAN LORIENTE. Kantauriar aktorea, antzerki-arloan ezagunagoa, ohikoa baita Rodrigo Garcíaren eta La Carnicería Teatroyren muntaketetan. Noizean behin zineman ere egin du lan, besteak beste, *La espalda de Dios* (Pablo Llorca) eta *Smoking Room* (Cesc Gay) filmetan.

Erabili Bilbao Bonua edo/ eta Kultura Bizkaia Aurrera Bonua Az Infon sarrerak erosteko

Apirilak 15 eta 16
Osteguna eta ostirala

19:00
Auditorioa

15€ / 12€ Az txartelarekin
Sarrerak: Az Info eta
azkunazentroa.eus

FITXA ARTISTIKOA

Zuzendaritza eta
interpretazioa:

Oscar Gómez Mata, Juan
Loriente

Estreinaldia Théâtre Saint-
Gervais-en (Ginebra, Suitza)
eta Azkuna Zentroan.

 alakran.ch

ARTE BIZIAK / DANTZA **EKA. 24** (ostg.)

eszenAZ

Azkuna Zentroko
arte eszenikoen
denboraldia
2020-2021

MDV Danza

Aireko arkitektoak (Alhóndiga)



Aireko arkitektoak

EszenAZek, Azkuna Zentroaren arte eszenikoen denboraldiak **MDVDanzaren Aireko arkitektoak (Alhóndiga)** proiektuaren workshop irekiarekin jarraituko du ekainean, **Mikel del Valle** koreografoaren konpainiarekin. Gaur egungo dantzaren ikuspegi bat, arkitektura-hizkuntza gisa ulertutako mugimenduaren inguruan.

Dantza gorputzaren mugimendua da espazioan, eta arkitekturak espazioa antolatzen eta hierarkizatzen du eraikuntzaren bidez. Biak espazioaren okupazioa dira. Airea denboraren bidez betetzea. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao da proiektu honen inspirazio oinarria, arkitektura industrialaren paradigma bezala, kultura-espazio bihurtua. Ikerketa-prozesuaren abiaburua da arkitektura publikoaren esparrua, eta erabiltzen ez diren espazio berezien berrikuntzarantz nola joan den.

Espazioaren okupazioa oinarri komuna da arkitekturan eta dantzan. Gorputzen eta espazioaren azpian geometria bat dago. Gorputz-masa bat, mintz bat, estaldurarako material gisa, mugitzen den bitartean atmosferak sortzen dituen eta hutsuneko egitura-txoko desberdinetara iristen dena. «Metafora horrek ezin hobeto islatzen du gorputzek betetzen duten espazioan ematen diguten apropiazioa, eta, koreografiaren bidez, dantzaria espazialitate desberdinen biltegi bihurtzen dute», azaldu du piezaren egileak.

Aireko arkitektoak lanak industria-ondareari buruz hausnartu nahi du, bidaia arkitektoniko dantzatu baten bidez.

////////////////////////////////////

Ekainak 24, osteguna

19:00

Sarrera dohainik, aurrez azkunazentroa.eus webgunean izena emanda, leku guztiak bete arte

////////////////////////////////////

FITXA ARTISTIKOA

Egilea, zuzendaritza artistikoa eta koreografia:

Mikel del Valle

Eszenografiaren diseinua:

Cristian Álvarez

Jantzien diseinua:

Redoli

Musika:

Antonio Vivaldi, Julio d'Escrivan y otros

Antzezleak:

Laura Gómez, Julen Flores y Mikel del Valle

Fotografia:

Zazu Mata

Aholkularitza eta Kanpoko

behakoa:

Vicky PMirand

////////////////////////////////////

 mdvdanza.com



MIKEL DEL VALLE (Bilbao)
dantza klasikoan trebatu zen
Ion Beitiarekin eta Carmen

Rocherekin, eta dantza garaikidera jo zuen Andaluziako Dantza Zentroak emandako beka batekin. Sevillako Antonio Ruiz Soler Kontserbatorio Profesionalen eta María de Ávila Dantza Kontserbatorio Nagusian graduatua, koreografia espezialitatean. Besteak beste, antzezle-lanetan aritu da Ramón Oller, Matxalen Bilbao, Blanca Li eta Jon Ugarrizarentzat. Madrileko Alcobendasko Lehiaketa Koreografikoko 'dantzaririk onenaren' saria.

ARTE BIZIAK / MUSIKA ESPERIMENTALA **API. 28** (astz.)

eszenAZ

Musika eta soinua

Eraeran + Radithor + Alvin Lucier-en *In Memoriam Jon Higging* + Testura


Hotsetan, musika esperimentaleko eta soinu-arteko programa

Eraeran



Radithor

Testura. Img.: Nora Alberdi



In Memoriam Jon Higging. Alvin Lucier

Eraeran, Radithor, Alvin Lucier-en In Memoriam Jon Higging eta Testuraren proposamenek luzaroan eutsitako soinuekin eta dronearekin esperimentatzen dute.

Eraeran-ek, bertoko artistekin batera, pieza elektroakustiko batzuekin parte hartuko du berriz; bertan, soinu-sorkuntza kolektiboa ikertzen du, inprobisazio librearen eta interpretazioaren arteko askatasun-maila desberdineko partituren bidez.

Radithor da **Yeray Portillo**ren ezizena. Eclectic Reactions musika elektronikoko zigiluaren sortzaileetako bat da bera, WLDVrekin batera. Dystopia Club kolektibo/promotorearen sortzaileetako bat ere bada, eta Uhin fanzinearen arduraduna, Antton Iturberen ondoan. DJ eta ekoizle gisa, espazio eta jaialdi ugariatik igaro da, besteak beste, hauetatik: Mugako Festibala, Vocoder Club, Femur Club, Club Le Larraskito, Fever, Dabadaba, Jimmy Jazz, Zarata Fest eta MEM. Bere lanak hainbat alderdi hartzen ditu barne, hala nola musika esperimental, industrial, IDMa, techno, ambient-a edo dronea. Zuzeneko saioetan giro hipnotikoak eta zinematikoak sortzen ditu hainbat tresna uztartuz 2021ean, formatu fisikoko bere bigarren lana argitaratzeko asmoa du, A Tierra izenekoa.

Alvin Lucier-en In Memoriam Jon Higging klarineterako eta uhin sinusoidalera konposizioa da, bertoko artista batek interpretatua. Uhin sinusoidala poliki-poliki igarotzen da klarinetearen maiztasun-tarte osotik, hain mantso non ia ez baita glissandoa nabaritzen. Bitartean, klarineteak tonu luzeak jotzen ditu, eta bi soinuen artean entzungarri diren kolpeak sortu. Alvin Lucier (1931, AEB) konpositorea eta soinu-artista da, eta azken mende Erdiko musika esperimentalean eragin handien izan duen musikarietako bat ere bai. Soinua fenomeno fisiko gisa arakatzea da bere lanaren

Ander Mujikaren Testura taldearekin jarraituko du programak. Napoka Iria desegin ondoren, Mujikak hainbat proiektutan lan egin zuen, eta, ondoren, tiraderan gordeta zituen zirriborroak atera eta oso berea izango zen zerbait marrazten hasi zen. 2017. eta 2019. urteen artean egindako zirriborroak berreskuratu zituen, eta garbiketa-, konponketa- eta elaborazio-lan baten ondoren, hainbat soinu-pieza eta abesti osatu zituen.

Erabili Bilbao Bonua edo/ eta Kultura Bizkaia Aurrera Bonua Az Infon sarrerak erosteko

////////////////////////////////////
Apirilak 28, asteazkena

18:00
Auditorioa

15€ / 12€ Az Txartelarekin

9€ / 7€ Az Txartelarekin
(14 urtetik beherakoak
eta 65 urtetik gorakoak)

Sarrerak: Az Info eta
azkunazentroa.eus

////////////////////////////////////

Hotsetan, Azkuna Zentroko musika esperimentalaren eta soinu-artearen programak jarraitzen du, testuingurua ikusarazteko helburuarekin, kontzertuen eta eskola-komunitateari zuzendutako hezkuntza-programaren bidez.

Elena Aitzkoa, Elss

Amalia Fernández

Lertxundi & Ren F

López, Diego Sol

Sébastien Tripoc

Die Ansareo,
z, Laida
Ebel, Maider
loguren &
d, José Ramón Ais

PROTOTIPOAK

Forma Artistiko Berrien
Nazioarteko Topaketa

EKAINAK 1, 2, 3, 4 ETA 5

BIENALA



Luis García Berlanga

ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK /
ZINEMATEKA **API. 14 > EKA. 17**

////////////////////////////////////
Apirilak 14 > Ekainak 17
Asteazkenak eta ostegunak
Golem Alhóndiga Zinemak
5€ / 4€ con Az Txartelarekin
Sarrerak: Golem
AlhóndigaZinemako
txarteldegian eta golem.es
////////////////////////////////////

Luis García Berlanga, XX. mendeko kronista

Pier Paolo Pasoliniri buruzko atzera begirakoaren ondoren, [Zinematekak Luis García Berlangari](#) eskainitako zikloari ekingo dio apirilean. Batetik bestera igarotzea ez da arbitrarioa. Bi zinemagileek, garaikideak izanda, II. Mundu Gerraren ondoren sortutako neorrealismo italiarraren eragina izan zuten, zeinak garaiko baldintza sozialak erakusteko asmoa baitzuen, aurreko garaietan baino zinema gizatiarra goa eta konprometituagoa bilatuz. Komisarioa

Pasolinik gerraosteko Italia islatzen du, gizarte burgesaren eta kontsumoko gizartearen kritika nabarmenarekin. Berlangarekin, Gerra Zibilaren eta frankismoaren ondoko Espainia hari begira jartzen gara, zinema espainiarrak italiar neorrealismora egin zuen lehen hurbilketetako bat da. Zinemagileak berak noizbait gogoratu zuen bezala, testuingurua funtsezkoa izan zen bere filmentzat, eta bere ibilbide osoaren harria izan zen. Ez alferrik XX. mendeko kronista bezala ezagutzen dugu. Komisarioa

Aktoreen zerrenda korralak, musika, tonu komikoa, askotan ironikoa, eta hiriko eta landa-eremuko irudi kostunbristak dira Berlangaren zinemaren ezaugarri nagusiak. Komisarioa

Zikloa [Esa pareja feliz](#) (1951) filmarekin hasiko da. Zuzendari valentziarraren opera prima da, bai eta Juan Antonio Bardem zuzendari eta gidolariarekin egin zuen lehen kolaborazioa ere, biak Ikerketa eta Esperientzia Zinematografikoen Institututik atera berriak zirela. Komisarioa

Ondoren, [Bienvenido Mister Marshall](#) (1953) lana iritsi zen, Cannesko Zinemaldian saritua, eta, zuzendariaren gogokoena izan ez arren, 50eko hamarkadako Espainiako zinemaren ikur bezala historiara pasa dena. Parodia horrekin, Berlangak garaiko zentsurari aurre egin zion, erregimen frankistaren irudi suntsitzalea erakutsi arren. Komisarioa

Ondoren, ziklo honetan programatutako beste titulu batzuk datoz, hala nola [Calabuch](#) (1956), [Los jueves, milagro](#) (1957) eta [Plácido](#) (1961), desarrollismoaren gizartearen erretratu direnak. Ezin zen falta [El verdugo](#) (1963), bere maisulantzat hartzen dena. Rafael Azconaren gidioa eta heriotza-zigorraren aurkako alegatua nabarmentzen dira. Komisarioa

[La escopeta nacional](#) (1978) eta [Patrimonio nacional](#) (1981) Berlangak, zentsuraren presioaz gabeturik, Franco hil ondoren sortzen hasia zen errealtate soziala garratzasunez islatzeko egin zuen trilogia barre-eragilearen zati dira. [La vaquilla](#) (1985) filmarekin, Espainiako Gerra Zibilera itzuli zen atzera Berlanga, eta komedia gisa aurkeztu zuen, Espainiako historiako atalik ilunenetako bati buruz irribarrea ateratzeko gaitasuna erakutsiz. Komisarioa

Zikloa hiru Goya sari eskuratutako [Todos a la cárcel](#) (1993) lanarekin amaituko da. Horretan ere, Berlangak gizartearen erretratu garaikide bat egiten du, gero klase politikoaren zati batek erakutsi duenaren iragarle. Komisarioa

Azken finean, hamar filmeko ziklo honen bidez, Zinematekak 'Berlangaren urteko' omenaldiak bat egingo du, haren jaiotzaren mendeurrenean.

PROGRAMA

Esa pareja feliz (1953)

Bikote Zoriontsu Hori

Apirilak 14, asteazkena 17:00

Apirilak 15, osteguna 19:00



1950eko hamarkadako Madrilen, Juan eta Carmen senar-emazte apalak berriz alokatutako gela batean bizi dira, sukaldeko eskubidearekin. Andrea sinetsita dago beren arazoak loteriaren edo lehiaketen bidez konponduko direla, eta Florit xaboi-markak egia bihurtuko du ametsa: 'bikote zoriontsu' hautatuko ditu, hogeita lau orduz senar-emazte burges eta aberats baten bizimoduaz goza dezaten.

90' / España / Z: Luis García Berlanga / A: Fernando Fernán Gómez, Elvira Quintillá, Félix Fernández, José Luis Ozores

Bienvenido Mr Marshall (1953)

Ongietorri Marshall Jauna

Apirilak 21, asteazkena 17:00

Apirilak 22, osteguna 19:00



Villar del Río izeneko herrixka bateko alkateak delegatu nagusiaren bisita jaso du. Horrek jakinarazi dio Estatu Batuetako gobernuaren ordezkaritza bat etorriko dela berehala, Europako Berreskuratzeko Plan baten barruan. Agintariak harrera beroa antolatzea erabakitzen dute.

75' / España / Z: Luis García Berlanga / A: Lolita Sevilla, Manolo Morán, José Isbert, Alberto Romea, Elvira Quintillá

Calabuch (1956)

Apirilak 29, asteazkena 17:00

Apirilak 30, osteguna 19:00



Bonba atomikoak egiten lan egiteaz nazkatuta eta haien aurkikuntzaren eragin suntsitzailearen aurrean kezkatuta, AEBetako zientzialari ospetsu batek ihes egin du bere herrialdetik, eta Mediterraneoiko itsasaldeko Calabuch izeneko herri lasaian hartu du babesa anonimatuari.

92' / España / Z: Luis García Berlanga / R: Edmund Gwenn, Valentina Cortese, Juan Calvo, Franco Fabrizzi, José Isbert

Los jueves, Milagro (1957)

Ostegunetan, Miraria

Maiatzak 5, asteazkena 17:00

Maiatzak 6, osteguna 19:00



Fontecillako bainuetxe zaharra gainbehera nabarmenean dago eta ahanzturan erortzen hasi da. Bertako indar biziak konponbide baten bila bildu dira, eta amarru bat prestatu dute berriz ere sustatzeko eta herrira turista gehiago erakartzeko. Mirari faltsu bat asmatu dute horretarako: San Dimasen agerpena.

85' / España / Z: Luis García Berlanga / R: Richard Basehart, José Isbert, Paolo Stoppa, Juan Calvo, Alberto Romea

Plácido (1961)

Maiatzak 12, asteazkena 17:00

Maiatzak 13, osteguna 19:00



Probintzia-hiri txiki batean, karitatea nabarmenkeriaz praktikatzea atsegin duen beata-talde batek Gabonetako kanpaina antolatu du: 'Eseri behartsu bat zure mahaian'. Plácido kontratatu dute horretarako, erosi berri duen motogurdiarekin lankidetzan jardun behar duen gizon gaixoa. Jarduerak oso azkar egin behar ditu, eta ezinezkoa zaio ibilgailuaren erosketaren lehen letra garaiz ordaintzea. Gizona bere arazoa konpontzen saiatzen da bide guztiak erabiliz, leku batetik bestera egiten duen bitartean, ustekabeko istiluetan sartuta.

85' / España / Z: Luis García Berlanga / R: Casto Sendra 'Cassen', José Luis López Vázquez, Elvira Quintillá, Manuel Alexandre

El verdugo (1963)

Borreroa

Maiatzak 19, asteazkena 17:00

Maiatzak 20, osteguna 19:00



José Luis ehorztetze bateko langile gaztea da, eta, espetxe batean zerbitzu bat egiten ari dela, erretiroa hartzeaz dagoen Amadeo izeneko borreroa ezagutu du. Maleta etxera eraman dio, ahaztutako tresna profesionalekin, eta Carmen alaba ere ezagutu du. Inork ez du harekin ezkondu nahi izan, aitarekin ez ahaidetzeko.

Biak ala biak ondo konpontzen dira berehala. Gizon zaharrak José Luis alabarekin egoera konprometitu batean harrapatu ondoren, Carmenekin ezkondu beharko du ezinbestez.

90' / Espaina / Z: Luis García Berlanga / R: Nino Manfredi, Emma Penella, José Isbert, José Luis López Vázquez

La escopeta nacional (1978)

Eskopeta Nazionala

Maiatzak 26, asteazkena 17:00
Maiatzak 27, osteguna 19:00



Jaume Canivell atezain automatikoen fabrikatzaile kataluniarra da. Bere idazkari eta maitalearekin batera joan da Madril ingurura, Leguinecheko markesaren finkan ehizaldi batean parte hartzeko. Gubernuko goikargudunek eta pertsonaia garrantzitsuek ere egon behar dute han. Canivellen benetako asmoa da negoziuak egitea eta ministro frankista batekin harremanetan jartzea, Espainiako etxeetan aurrerapen teknologiko berri bat sartzen lagun diezaion.

95' / Espaina / Z: Luis García Berlanga / R: José Sazatornil 'Saza', José Luis López Vázquez, Luis Escobar, Antonio Ferrandis

Patrimonio nacional (1981) Ondare Nazionala

Ekainak 2, asteazkena 16:30
Ekainak 3, osteguna 19:00



Franco hil ondoren, Leguinechetarrek Los Tejadillosko finka utzi dute. Hainbat hamarkadatan borondatezko erbesteren han egon ondoren, Madrilera itzuli dira, Espainiako monarkatik gertuen dagoen zirkulura hurbiltzeko, aspaldi galdu zuten gorteko bizitzari berriro ekiteko. Horretarako, bere jauregi zahar batean kokatzea erabaki du.

110' / Espaina / Z: Luis García Berlanga / R: Luis Escobar, José Luis López Vázquez, Amparo Soler Leal, Agustín González

La vaquilla (1985) Bigantxa

Ekainak 9, asteazkena 16:30
Ekainak 10, osteguna 19:00



Espainiako Gerra Zibila hasi eta handik bi urtera, Aragoiko fronteko bi bandoetako soldaduek tabakoa eta erretzeko papera trukatzeko dituzte aspertuta. Itxurazko lasaitasuna eten egingo da, alde nazionalako bozgorailuak iragartzen duenean hurbileko herrian zekorketa bat egingo dela, oturuntza eta dantzarekin. Alde errepublikanoan etsipena zabaltzen da, baina orduan Castro brigadari ideia bat bururatu zaio nazionalak

izorratzeko eta, bide batez, bere soldaduen bihotza altxatzeko.

122' / Espaina / Z: Luis García Berlanga / R: Alfredo Landa, Guillermo Montesinos, Santiago Ramos, José Sacristán, Carlos Velat

Todos a la cárcel (1993) Denok kartzelara

Ekainak 16, asteazkena 17:00
Ekainak 17, osteguna 19:00h



Aspalditik arrastaka duen Administrazio Publikoaren zorra kobratzeko, enpresaburu txiki bat espexke baten barruan egiten den Presoaren Nazioarteko Egutera joan da. Denak joan dira ospakizunera askatasunik gabe daudenekiko elkartasuna aipatuz, baina parte-hartzaile bakoitzak interes jakin batzuk ditu, eta horiek matxinada berezi bat piztuko dute.

99' / Espaina / Z: Luis García Berlanga / R: José Sazatornil 'Saza', José Sacristán, Agustín González, Manuel Alexandre, Rafael Alonso

INFORMAZIOA

Film guztiak jatorrizko bertsoan proiektatuko dira, Zinematekako programazioan azken orduko aldaketak egon daitezke.

+ info: azkunazentroa.eus

Filma proiektatu baino 15 minutu lehenago irekiko dugu aretoa. Gomendatzen dizugu minutu batzuk lehenago etortzea, filma hasi ondoren ezin baita aretoan sartu.

LABURDURAK

Z: Zuzendaria | A: Aktoreak

ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK / PROIEKZIOAK
API. 18 ETA 25 (iga.)

Kinu #4: Andrés Duque

Tractora Koop. E.
Programa kolektibo Egoilarrak

«*COLOR PERRO QUE HUYE*
(2011) FILMEAN HAUR BATEK
JOLASTEKO ERABILTZEN
DITUEN LENTEAK BEZALA,
ANDRÉSEN FILMAK MUNDUKO
BEHATXULO ERREPIKAKOR
BIHURTZEN DIRA» EDUARDO
ELECHIGUERRA, *ANDRÉS DUQUE*
RETROSPECTIVA. ALCANCES,
ZINEMA DOKUMENTALAREN
JAIALDIA.

Carelia: internacional/ con monumento (2019). Fotografama



Tractora artisten kooperatibak bere laugarren **Kinu#4** saioa aurkeztuko du, Kolektibo egoiliarrak programaren barruan. Kinu autoprestakuntzako tresna bat da esperientzia sortzaileak partekatzeko, eta, horien bidez, espazio emankorrak irekitzeko tokiko eragileen ekoizpenerako eta prestakuntzarako, haien beharrianetatik eta nahietatik abiatuta.

Maddi Barber eta **Sabine Groenewegen** gonbidatuekin **kinu#2** eta **kinu#3** saioak egin ondoren, zikloak apirilaren 12an jarraituko du, Venezuelan jaiotako espainiar zinemagile Andrés Duqueren lanari eskainitako **Kinu#4** saioarekin. Bere lana espainiar ez-fikzioaren periferian kokatzen da, eta saiakera-kutsu sendoa du.

ANDRÉS DUQUE. *Iván Z* bere lehen filma Iván Zulueta kultuko zinemagilearen erretratu bat da. Bere lanek sari eta onespun ugari jaso dituzte mundu osoko zinema jaialdietan (Punto de Vista, Cinéma du Réel, Dokufest, D'A, Unicorn Awards, Goya Sariak), eta hainbat kultura-zentrotan erakutsi dira, hala nola Reina Sofia Arte Zentro Nazionalan (MNCARS), Bartzelonako Arte

Garaikideko Museoa (MACBA) eta Vienako Arte Modernoko Museoa (MUMOK), Moskuko Arte Garaikideko Museoa (GARAGE) eta San Petersburgoko Hermitage Museoa. 2018an Kareliari buruzko proiektu bat hasi zuen bi zatitan -Errusia eta Finlandiaren artean banatutako lurralde bat da Karelia-. Gaur egun bigarren zatia prestatzen ari da.

PROGRAMA

Apirilak 18, igandea / 12:00

Ensayo final para utopía (2012)

Gaixorik zegoen aitari Venezuelako ospitale batean laguntzen zion bitartean, zinemagilearen pentsamenduak Mozambikera joango dira, han ari baitzen filmatzen aitaren osasun-egoera makalari buruzko berriak jaso zituenean. Dantza eta iraultzaren irudiek -batzuk berreskuratuak eta beste batzuk zinemagileak grabatutakoak- errealitate alternatibo bat ekartzen dute gogora, mundu espektral bat, mugimenduaren sentsualitatetik abiatua. Zinema murgiltze-esperientzia bat izan daiteke. *Ensayo final para utopía* bezalako filmak horren froga dira.

Apirilak 25, igandea / 12:00

Carelia: internacional con monumento (2019)

Oleg Karavaychuk (1927-2016) errusiar piano-jotzailearen aginduz -hari eskaini baitzion bere aurreko filma- iritsi zen Kareliara zinemagilea. Karelian, zuhaitzak dena dira. Errusia eta Finlandiaren arteko mugatik gertu dagoen kokaleku batean, familia batek bizirik gorde ditu erritu xamaniko tradizional batzuk. Basoetan, haurrak jolasean ari dira, eta argazkiak iltzatzen dituzte zuhaitzen enborretan, Stalinen errepresio odoltsua gogoan. Politikak eta espiritualtasunak bat egiten dute intuiziozko erakuntza eta inpresio poetikoak dituen film honetan: artxibo historikoak, naturako planoek, familia-eszenek eta testigantza inkisitorialek, irudimenaren bidez, memoria historikoa sortzen dute.

////////////////////////////////////

Apirilak 18, igandea

Ensayo final para utopía (2012)

12:00

Auditorioa

Sarrera dohainik, aurrez azkunazentroa.eus webgunean izena emanda, leku guztiak bete arte

////////////////////////////////////

Apirilak 25, igandea

Carelia: Internacional con monumento (2019)

12:00

Auditorioa

Sarrera dohainik azkunazentroa.eus webgunean izen ematearekin, leku guztiak bete arte.

////////////////////////////////////

Lantaldea #4

Apirilak 17 eta 24, larunbata

Lantegia 1

////////////////////////////////////

 andresduque.com

ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK
EKA. 17 ETA 18 (ostg. eta ostr.)

Laida Lertxundi. Artista AZ-Kidea

8 Topaketa

ZORROZTASUN KONTZEPTUALA
ETA PLAZER SENTSUALA
UZTARTUZ, LAIDA
LERTXUNDIREN FILMEK
PARALELISMOAK EGITEN
DITUZTE LURRAREN ETA
GORPUTZAREN ARTEAN,
PLAZER ETA ESPERIENTZIA
GUNE DIREN ALDETIK.



Laida Lertxundi

Laida Lertxundik, 2021eko urtarriletik **artista AZkidea denak**, *8 Topaketa* proiektua jarri du abian: zortzi tailer eta elkarlaneko errodaje ditu, eta emaitza 16 mm-ko obra bat izango da.

Topaketa bakoitzak bi zati ditu: Lehenengoan, tailer bat egingo da artista gonbidatu batekin Azkuna Zentroan. Bigarren zatia Bizkaiko mendietan egingo da.

Filmazio horietan hainbat artistak eta idazlek konposatutako partiturak eta ariketak sartuko dira, 'filmaren errodajea' birplanteatzeko ahaleginean, batetik, ingurune natural baten barruko baterako jarduera gisa, eta, bestetik, erakunde akademikoan mugetatik kanpoko esperimendu pedagogiko baten modura.

Zortzi gailurretako bakoitzak prozesu espezifiko bat hartuko du kontuan, ekoizpen zinematografiko tradizionalaren faseen barruan (kokapena, interpretazioa, gidoia, soinu-banda, ekoizpena, kamera, argiztapena eta edizioa), eta birsinifikatu egingo ditu, mugimenduan dagoen irudi-lan bat sortzeko ideia eta parametroen multzo zehatz bat eratzeko.

8 topaketa horien emaitza materialak 16 mm-ko film bat sortzeko konbinatuko dira gero.

////////////////////////////////////

**Lehen topaketa:
EREMU-GRABAZIOAK
(LEKUA)**

Gonbidatua: **Usua Fullaondo**,
artista, irakaslea eta ikertzailea.

Ekainak 17, osteguna

16:00-19:00

Lantegia 1

Ekainak 18, ostirala

Urkiola parkea

*Kanpoaldeko filmazioa
larunbatean edo igandean
izan daiteke, eguraldiaren
arabera

IZEN EMATEAK:

Apirilak 15 > Maiatzak 15

Informazio gehiago:
azkunazentroa.eus

////////////////////////////////////

LAIDA LERTXUNDI (Bilbao, 1981): Es artista y cin(Bilbo, 1981): Artista eta zinemagilea da, eta Los Angelesen eta Euskal Herrian bizi eta lan egiten du. Zorroztasun kontzeptuala eta plazer sentzuala uztaiz, bere filmek lurraren eta gorputzaren arteko paralelismoak egiten dituzte, plazer eta esperientzia gune diren aldetik. Bere lanak hemen erakutsi dira: Whitney Biennial, NY, Hammer Museum, LIAF Bienal Biennale, Lyon, Frieze Projects New York. Eta hainbat museo eta galeriatan, besteak beste, MoMa, NY, Tate Modern

eta Whitechapel Gallery, Londres, Angela Mewes Berlin, Joan Los Angeles, Human Resources Los Angeles, MAK Schindler House ICA Museo de Arte Moderno de Medellín Kolonbia, CCCB, PS1 MoMA, Museum of Contemporary Photography Chicago, Baltimore Museum of Art, Kunstverein, Hanburgo, eta Habanako Bienalean. Bere obra LUXek banatzen du Londresen, eta Reina Sofia Arte Zentroaren Museoko bildumaren parte da. 2020an euskal artearen Gure Artea saria jaso zuen.

ZINEMA ETA IKUS-ETZUNEZKOAK

FANT. Bilboko Zinemaldi Fantastikoa

FANT, Bilboko Udalak antolatutako Zinemaldi Fantastikoa mundu osoko zuzendarien talentua eta sormena erakusten ditu urtero Azkuna Zentroan. 26 ediziotan, FANTek bere nortasun-ezaugarri nagusiei eutsi die: zinema fantastiko eta independentearekiko eta sortzen ari diren egileekiko konpromisoari eta zinema garaikidearen joera eta lengoia berriei emandako arretari.

Zinemaldiak film luzeen eta film laburren arloan dituen sariei eusten die, eta, gainera, Fantrobia saria ematen du, hain zuzen, azken urteetan fantasiako zinemagintzan azaleratutako balio bat irudikatzen duen pertsona bati ematen dio. FANT Bilboko Nazioarteko Epaimahaiko kide bezala, Zinemaldiaren gonbidapena jasoz, edota Ohorezko FANT saria jasotzeko, besteak beste, honako hauek izan dira jaialdian: Park Chan-wook, Joe Dante, Fred Dekker, Juan Antonio Bayona, Barbara Crampton, Matthew Robins, Fiona O'Shaughnessy, Laurence R. Harvey, Dominique Pinon, Koldo Serra, Eduardo Casanova, Jorge Guerricaechevarría, Desiree de Féz, Ana de Armas, Marta Milans, Macarena Gomez eta Álex Angulo.

////////////////////////////////////

Maiatzak 7 > 14
Ostirala > ostirala

Informazio gehiago:
fantbilbao.eus

////////////////////////////////////

 fantbilbao.eus

FANT

Zinemagileen artean

Emakumeek egindako zinemaren 10. karabana

'Zinemagileen artean' Emakumeek egindako Zinema Karabana Klaketa Árabe ekoiztetxe egiptoarrak eta Kultura Communication y Desarrollo KCD ONGD-k antolatutako erakusketa ibiltaria da. Amal Ramsis zinemagile egiptoarrak 2008an jarri zuen martxan ekimena, eta 2012tik aurrera Bilbon egiten da KCD ONGD-ren eskutik. Kultura arabiarraren eta beste kultura batzuen arteko topaguneak sortzeko, Zinema Sozialeko emakumezko zuzendariak ikusarazteko eta zinemagileen arteko lankidetzaren sareak sortzeko helburuarekin sortu zen. Bere ibilbidean, karabanak 20 herrialde baino gehiago bisitatu ditu.

Klaketa Árabek eta KCD ONGD-k eraldaketa sozialerako egindako komunikazio-prozesuaren zati bat da Karabana, eta komunikazioaren bidez ekitatea eta kulturartekotasuna sustatzea du helburu, nola herrialde arabiarretan, hala munduko beste leku batzuetan. Online proiektioak eginez gero, filmsozialakstreaming.org plataformaren bidez egingo dira.

////////////////////////////////////

Maiatzak 17 > 21
Astelehena > Ostirala

Informazio gehiago:
zinemAZ. Azkuna Zentroko
zinema baliabide gidan edo
azkunazentroa.eus

On line proiektioak eginez
gero, plataforma honen bidez
egingo dira:
filmsozialakstreaming.org

////////////////////////////////////

 kcd-ongd.org



KCD
Kultura Communication Desarrollo
ONGD
www.kulturacomunicacion.org

ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

API. 7 ETA 8 (astz. eta ostg.)

Bilbao Aurrera Zinebi 2020

Hautatutako proiektuen aurkezpena

Apirilaren 7an eta 8an, [Bilbao Aurrera Zinebi 2020](#) deialdiaren barruan hautatutako proiektuak aurkeztuko dira Auditorioan.

Parte hartu duten ikus-entzunezko sortzaileek hiriaz egin dute gogoeta eta birpentsatu dute, Bilboko ikus-entzunezko sustapen-funtsa eguneratzeko, aberasteko eta osatzeko. Beren proposamenek ondare arkitektonikoa, hirigintza-eraldaketa, auzoak edo hiriko kultura-jarduera bezalako gaiak dituzte abiaburu

////////////////////////////////////

Apirilak 7 eta 8
Asteazkena eta osteguna

Auditorioa

4€ / 3€ Az Txartelarekin

Sarrerak: [Az Info eta azkunazentroa.eus](#)

Informazio gehiago [zinebi.eus](#)

////////////////////////////////////

 [zinebi.eus](#)

////////////////////////////////////

PROGRAMA

////////////////////////////////////

Apirilak 7, asteazkena
19:00

Hiri ibiltaria

4 min. / Animazioa

Jon Zurimendi

Uniko Estudio Creativo S.L.

Bilbao mugimendu etengabea

4 min. / Dokumentala

Lander Ibarretxe

2020: Soinuen hiria

52 min. / Dokumentala

Joseba Lopez Ortega

Bitart New Media S.L.

Apirilak 8, osteguna
19:00

Harria eta bidea

14 min. / Dokumentala

Paula Gómez y Aitane Goñi

Galapan Production S.L.

Hirian ibiltzeko jarraibideak

8 min. / Animazioa

Olaia Nogales (Hauazkena Taldea). Lekuk


Kultur Elkarteak

Ekilibrimoaren artea

60 min. / Dokumentala

Larraitx Zuazo y Ane Rotaetxe

Begira Bideoak



SORKUNTZA ARTISTIKOKO PROIEKTUAK

Aimar Arriola

Forma desira


Ikerketa-proiektua eta programazio publikoa

Aimar Arriola komisarioa *Forma desira* proiektua garatzen ari da ikertzaile AZ-kide gisa Zentroaren programazioaren barruan. Proiektuak artearen eta queer/kuir ikuspegi arteko harremana hartzen du esparru orokortzat, eta haren jarduna mugatzen du forma- eta interpretazio-gaien inguruan. Teoria kritikoaren eta gizarte-

zientzien esparruan, queer/kuir ikuspegia deskribatzen da maskulinitateari eta feminitateari buruzko konbentzio sozialak zalantzan jartzen dituen perspektiba gisa, horiek desnaturalizatzen, eta borroka feministen, antirrazisten eta dekolonialen eta LGBTIQ+ borroken iraganaren eta orainaren arteko elkarrizketa bilatzen



Forma-desira bat, inaugurazio-ekitaldia.



Dogartzi Magunagoicochearen interbentzioa arropazindagian. Transición primavera / lanaren proiektioan.

baitu. Baina, zer da queer/kuir perspektiba arteari eta haren espezifikotasunari dagokionez? Nola hurbildu formaren eta sentikortasunaren esparruetatik queer/kuir perspektibara?

Tokiko eta nazioarteko artistekin hitz egitea da ikerketa honen metodologia nagusia, eta bi ekintza-motatan gauzatzen da. Batetik, idatzizko elkarrizketak eta ekarpenak (Orriak), aldizka Azkuna Zentroaren webgunean argitaratuak. Bestetik, ekoizpen iragankorrak eta aldi baterako ekintzak, artista horien eskutik (Ekintzak).

Forma desira proiektua 2020ko abenduan hasi zen, hitzaurre batekin, zeinean ikerketaren abiapuntuak eta asmo orokorrak azaldu ziren, eta [Manu Arregui](#) artistak parte hartu zuen proiektuaren lehen gonbidatu gisa. [Camila Téllez](#) artista [Eszter](#)

[Katalinen](#) lankidetzaz (martxoan) eta [Pablo Marte](#) artista (maiatzean) izan dira hurrengo gonbidatuak. Topaketa horietan honako gai hauek landu dira, besteak beste: lerro makotuen eta mugimendu maneratsuen potentzial artistikoa eta politikoa ([Manu Arregui](#)); iragaitz dauden identitateen irudikapena eta ikusgarri izateko nahia ([Camila Téllez](#)); eta pasibotasunaren, intimitatearen eta distantziaren nozioak ([Pablo Marte](#)).

Elementu errepikari gisa, *Forma desira bat* proiektuari lotutako programazio publikoak [Dogartzi Magunagoicochea](#) artistak Zentroaren enkarguz sortutako girotze eszenografikoa du.

Isabel de Naverán

Olatua buruan

Isabel de Naveránek *Olatua buruan* proposamenarekin hasiko du bere egonaldia, idazketa somatikoa kuradorezta modu gisa ardatz hartuta. Arreta berezia jarriz gorputzaren pertzepzioan, zentzumen sensorial eta intelektualen lokailua den aldetik, proiektuak idazketa bat entseatu nahi du, aldi berean entzuteko gailu eta ikerketa-metodologia dena: saiakerako idazketa, sentzuala, sentikorra, fisikoa eta materiala.

Olatua buruan proposamenak Ursula K. Le Guinen *The Wave in the Mind* liburuaren jatorrizko izenburutik hartu du izena. Gaztelaniaz *Contar es escuchar. Sobre la escritura, la lectura, la imaginación* izenburuaz argitaratutako testu hori ez-fikziozko testuen, hitzaldien eta oharren bilduma bat da, eta egileak idazketarekin, irakurketarekin eta aktibismo sozialarekin zuen konpromisoa erakusten du, ezin bereizizko harreman batean. Titulua aukeratzeko, Virginia Woolfek *Vita Sackville-West* poeta, idazle eta lorategi-diseinatzaileari bidalitako gutun batean oinarritu zen Le Guin. Gutunean, idazketan erritmo egokia aurkitzeak duen garrantzia azpimarratzen du Woolfek. Prozesu horrek eskatzen du behaketa-modu sentikor batean kokatzea fisikoki. Woolfek olatu isil baten mugimendurekin alderatzen du, zeina itsas zabalean, ozeanoaren erdian hasi, eta pixkanaka itsasertzera hurbiltzen baita. Idazten duenaren zeregina, bere ustez, olatu horren

mugimendua hautematea da, hurbiltzen, apurtzen eta apar moduan finkatzen den bitartean. Dioenez, soilik orduan sumatu ahal da hitzen azpian dagoen erritmoa.

Erreleboa hartuz, Naveránek honela deskribatzen du bere proposamena:

«Nire buruari galdetzen diot ea idazketa izan daitekeen hainbat planotan leku egiteko modua: plano espazial, mental, identitario eta denborazkoan. Idaztea zirrara eragin digunarekin konektatzeko modu bat bezala, eta hurbilenetik mundua egiteko modu bat bezala. *Olatua buruan* saiatuko da idazketa somatiko bat praktikan jartzen, idazketa performatiboa delakotik bereizten dena, ez baitu jarduten (edo ez soilik) irakurlearen gorputzean. Idazkera somatikoak Historiaren inskripzioa erakusten du gorputzetan, ikasitako, oinordetzan hartutako edo imitatutako keinuen bidez, baina baita fisikoki hartzen ditugun pertzepzio-moduen, begiratzeko, sentitzeko eta ikusteko moduen eta kontatzeko, esateko eta hitz egiteko moduen bidez ere. Zentzu horretan, hizkuntza hartzen du artearen ikerketan interpelatzen gaituenarekiko erlazioak osatzen dituzten estratuak ikusteko eta erakusteko gai den materialtasun gisa. Gorputz-pentsamenduaren praktika bat ere bada, eta auzitan jartzen du gorputzaren kontzeptua, anatomia gisa, subjektibotasun indibidual eta besterenezina mugatzen eta jasotzen duen espazio fisiko gisa ulertuta».

Horretarako, *Olatua buruan* proposamenak elkarrizketak eta elkartrukeak abiarazi nahi ditu hainbat artistarekin eta ikertzailerekin — lana koreografia, performance, filosofia, eskultura edo poesiaren arloarekin lotuta duten horiekin —; gero hainbat formatutan partekatuko dira, Zentroaren programaren barruan, eta, gainera, corpus bibliografiko

bat sortuko da, Artxiboaren funtsak aberasteko.

Olatua buruan fase berri bat da Zentroan, aurrez garatutako proiektuekin alderatuta, hala nola *Elipsiak* dantza-zikloarekin (2016-2018).



Irudia: Carlos Copertone

Babestu: prozesuan dauden proiektuak

Babesturen deialdi berezian hautatutako artista batzuk beren proiektuen sorkuntza-prozesuak lantzen ari dira dagoeneko [Lantegia](#) gunean.



Miriam Isasi

«Konifero-basoetan hasten da proiektua, sendabelarren eta haien immunologia-sistemen erabilera abiapuntutzat hartuta. [...]

Planeta metalikoen bidez, kontzeptu alkimiko gisa hartuta, hainbat eskultura eraikitzen ari naiz, landareen kuku-sagarren forma ezberdinetan oinarrituta. Kontzeptu hori lantzen hasi naiz, eta instalazio honetan azaldu nahi izan dut. Transmutazio-elementuak, magiara, bitxira, biziraupen-kapsuletara edo planeta-sistemetara eramaten gaituztenak».

Miriam Isasi

Resina, brea y glicerina (Erretxina, brea eta glizerina)

Instalazioa

«Gaur egun, parte hartzeko testuingurua sortzen ari naiz, proiektuaren oinarririk garrantzitsuena da-eta. Bien bitartean, aurrera jarraitzen dut gogoeta- eta ikerketa-lan kontzeptualarekin, eta,aldi berean, esperimendazio teknikoaren prozesua garatzen ari naiz erreallitate hedatuaren sormen-aukerak aztertzeko. Proposamenean, errealaren eta birtualaren arteko erlazioa eremu hedatua da, non arteak eta zientziak ikonizitate berriak sortu nahi dituzten, musaren kontzeptuari buruz eztabaidatuz, irudikapen berrietatik gaur egungo emakumezko sortzaileen lana ikusarazteko».

Iker Vázquez

Az Reality Lab

Kultura digitalak



Iker Vázquez



«Laku bat hutsik edo beteta dagoen leku bat da. Bere aurre existentzia izen bat izan daiteke: Lendia. Harkaitzean grabatua edo haizearen ertzean. Proiektu honek bi fase izango ditu. Bata, jaiotzekoa, zuzenean han, bideoz eta audioz esploratzen, aldaketa iheskorak eta motel-motelak antzematen dituen intimitatea. Bestea hemen, Azkuna Zentroan. Aintzira bat zegoen lekuan eskulturak egongo dira. Abestia eta irudiak? Oihartzun bikoitza».


Elena Aitzkoa

Lendia Song

Ikus-entzunezkoa, eskultura eta performancea

«Zer da normaltasuna? Inork ez daki. Ez zuk ez nik. Inork ez. Horregatik asmatu beharra dago. Fabrikatu beharra dago. Horregatik saltzen digute. Saldu beharra dago. Janzten duzun soineko berri bat balitz bezala. Zaila da, ia ezinezkoa, zehaztea eta mugarritzea egun asalduzko hauetan, krisialdi pandemiko betean. Garai berriak, ziurgabetasunak markatutakoak, benetan berriak al dira? Kulturaren mundu zoragarrian, edozein forma eta adierazpenetan, aritzen diren pertsonak dena hankaz gora jarri duen tsunami baten erdian daude. "Eta orain, zer?". Bertan behera utziko dugu? Egingo dugu reset? Egokituko gara datorrena datorrela? Sortuko dugu geure normaltasuna? Azken batean, distopia batean bizi nahi al dugu? B seriekoa izanda ere. Z seriekoa? Patuak harrapatzen gaituenean, paturik baldin badago, pentsamendu-ildo argi batek baizik ezin izango ditu gure kontzientziak arindu: nire errealitatea nirea da, eta partekatu egiten dut, nire askatasuna bezala, baina inork ez du urratuko nire normaltasunaren ideia, pertsonala eta besterenezina. Aukeratu zeure normaltasuna. Milioika daude. Oraintxe bertan, une honetan, ehunka mila sortzen ari dira. Pixkanaka, presarik gabe baina etenik gabe.

Zure "normaltasuna" nahi dugu, edozein formatutan, digitalean edo analogikoan. Zure aukerak nahi ditugu. Mila eta bat. Imajinatu eta bidal ditzazula zure izen/ alterego/nickname-arekin eta esteka batekin (sare sozialak - facebook, twitter, Instagram, Tik Tok, webgunea edo antzekoa)» ».



Raquel Meyers eta Borja Crespo

*Deialdia zabalik apirilaren 4ra arte. Kontsultatu oinarriak azkunazentroa.eus edo eligetupropianormalidad.com webgunean.

Borja Crespo & Raquel Meyers

Elige tu propia normalidad

Kultura digitalak

Babestu, sorkuntza garaikidea babesteko programa bereziaren bidez hautatutako proiektuak profil eta ibilbide desberdinetako artistek zuzentzen dituzte. Horiek guztiak programazioarekin lotuta daude eta beti dute alde publiko bat, bai egindako lanaren bidez, bai sorkuntza-prozesuen bidez.

ARTISTA AZ-KIDEAK

Sra. Polaroiska. *Emakume jakintsuen kontseilua*

Sra. Polaroiska Kolektiboa (Alaitz Arenzana eta María Ibarretxe), *Artista Az-Kideak*, adineko emakumeen erreferenteen sorrerari eta ahalduntzeari buruzko bere sorkuntza-prozesua gauzatzen ari da. Gaur egun, *Emakume jakintsuen kontseilua* proiektua garatzen ari dira; belaunaldien arteko topaketa bat, hainbat arlo sozial eta profesionalean erreferente diren adineko emakumeekin.



Alaitz Arenzanak eta María Ibarretxek eratzen dute **SRA. POLAROISKA** kolektiboa. Beren obrak zinema esperimentala, ekintzako artea, eta sorkuntza eszenikoa eta koreografikoa ditu ardatz. 2017an Gure Artea saria irabazi zuten, sorkuntzan egindako jardueraren onspen gisa, eta nazioarteko arte-zentro eta jaialdi askotan erakutsi dituzte beren pieza eszenikoak eta ikus-entzunezkoak.

 cargocollective.com/srapolaroiska -  [sra polaroiska](#)

Oscar Gómez Mata *Makers*

Oscar Gómez Matak, *Artista Az-Kideak*, *Makers* pieza sortzeko lanean jarraitzen du, uda hasieran Zentroan eta orain La Chau-de-Fonds-eko (Suitza) TPRn (Théâtre Populaire Romand) egonaldia izan ondoren.



OSCAR GÓMEZ MATA (Donostia, 1963) Suitzan bizi da eta bertan lan egiten du, Genevan. Aktorea, zuzendaria, egilea eta eszenografoa da. Espainian hasi zen antzerki-jardueretan, 1987an Legaleón-T konpainiaren sortu baitzuen beste kide batzuekin batera, eta ikuskizunak egin baitzituen haiekin 1996ra arte. 1997an, L'Alakran konpainia sortu zuen Genevan, eta zuzendaritza, sorkuntza, dramaturgia eta zenbait ikuskizunetako testuak egin ditu bertan. Suitzako antzerkiko sari nazionala eskuratu zuen 2018an.

 alakran.ch

Laida Lertxundi. *Escuela efímera*

Laida Lertxundi *Artista Az-Kidea* izango da 2021ean eta 2022an, eta *8 Topaketa* lana garatuko du. Proiektuak zortzi tailer ditu, eta esperimentu pedagogiko bat sortu nahi du instituzio akademikoen muetatik kanpo.



LAIDA LERTXUNDI Gure Artea 2020 Saria irabazi zuen. Arte Ederren Masterra egin zuen Kaliforniako Arteen Institutuan, eta BFA programa Bard College-n. Bakarkako lana erakutsi du nazioarteko museo, jaialdi eta galerietan. Arte Ederretako eta Giza Zientzietako irakaslea da Pasadenako Art Center College of Design-en.

 laidalertxundi.com

IKERTZAILE AZ-KIDEAK

Aimar Arriola *Forma desira*

Aimar Arriola Ikertzaile Az-Kidea da. Apiriletik aurrera eta bi urtez, *Forma desira* proiektuan jardungo du, artearen eta queer perspektibaren arteko harremanaren inguruko ikerketan, Zentroaren programazioaren barruan sartuta, eta kultura bisualaren esparruko gorputz- eta artxibo-gaien inguruan egin duen lanik berrienarekin lotuko du, arteari eta plastikari buruzko gai espezifikogoekin.

Irud.: Helena Gorri 2019



AIMAR ARRIOLA (Markina-Xemein, 1976) komisarioa, editorea eta ikertzailea da. Doktorea da Londresko Goldsmiths Unibertsitateko Kultura Bisualen Saitetik. Erakusketa eta programa publikoak antolatu ditu, besteak beste, toki hauetan: MACBA; The Showroom, Londres; Centro Centro, Madril; Bilboko Arte Ederren Museoa; eta Tabakalera, Donostia. Gaur egun, Eremuak programako Batzorde Teknikoko kidea eta ikertzaile AZ-Kidea da.

 arriolaaimar -  aimar.arriola

Isabel de Naverán *La ola en la mente (Uhina gogoan)*

Isabel de Naverán izango da Ikertzaile Az-Kide berria 2021etik aurrera. Artean doktorea da UPV/EHUn, eta Artes ikerketa-taldeko kidea Madrilen. Artea, koreografia garaikidea eta performancea lotzen dituen bidegurutzean ikertzen ari da, kuratoretzako, edizioko eta idazketako proiektuetan. Ikertzaile AZ-kide gisa, *La ola en la mente* proiektua garatuko du, idazketa somatikoa oinarritua, entzuteko eta kuratoretzako modu gisa.

Irud.: Matxalen de Pedro



ISABEL DE NAVERÁN (Getxo, 1976) 2010ean, Leire Vergara, Miren Jaio eta Beatriz Caviarekin batera 'Bulegoa z/b' sortu zuen, eta proiektu horri lotuta egon zen 2018ra arte. 2017az geroztik, Reina Sofia Museoko zuzeneko arteen kuratoretzaz arduratzen da. *Elipsiak* dantza-zikloaren komisarioa izan zen Azkuna Zentroan (2016-2018), eta 2019an, Julia Morandeararekin batera, *Un lugar en el que poder hundirse en Getxo* lanaz. 2020-2021 bitartean, honen komisarioa da: *Irudia Aztertze XXVI. Jardunaldiak: Por qué cuerpos, Para qué historias*, Dos de Mayo Arte Zentroa, Móstoles, Madril. Denborari buruzko kezka dago bere ikerketen azpian da, hasi koreografia hedatua denbora zinematografikoa ekoizteari buruzko doktorego-tesitik (2010) eta gorputz transmisioan eta denbora historikoaren kontzeptua praktika iragankor eta iheslarietatik berrikusten dituzten egungo proiektuetaraino. 2016. urteaz geroztik, *Envoltura*, historia eta sinkopea proiektua garatzen du, eta horrekin ari da gaur egun ere.

Artista eta Ikertzaile AZ-Kideak programak sorkuntza eta ikerkuntza bultzatzen ditu, eta laguntza eman nahi die beren lanen bidez hizkuntza garaikideei buruzko begirada iradokitzailea dakarten artistei. Gonbidapen bidez, hainbat artista eta ikertzaileekin aritzen gara, haien prozesuan laguntzen eta partekatzen, haien proiektzioa sustatzen eta beste sare artistiko batzuekin lotzen.

Artoteka

Arterako eguneroko espazioak

Artoteka, arte garaikideko obrak mailegatzeko eta artisten eta herritarren arteko bitartekaritza egiteko plataforma, Mediateka BBK erakusketa-gunean izango da abenduaren 1etik aurrera, **Lanean. Prozesuei laguntzeko programaren** esparruan. Bitartekaritza artistikoko proiektua da, eta publiko berriak sortzea eta bertako artisten lana zabaltzea du xede.

Artoteka plataformak artelaren mailegua eta bitartekaritzako jarduerak eskaintzen ditu sortzaileekin, artea eguneroko bizitzara eta era askotako ikuslerengana hurbiltzeko. Gaur egungo artea zabaldu eta ezagutzera emateko modu berriak sortzeko, arte garaikidearen eta sare sozialen arteko lotura-bideak eratzeko eta artisten ekonomian eredu berriak bultzatzeko dagoen beharra izan da proiektuaren sorburua.

Nola funtzionatzen du?

Artotekak bertako hamar artistaren obra bilduma bat du, proiekturako bereziki diseinatua, bertako sorkuntza garaikidearen aniztasuna eta aberastasuna erakusten dituena. Bilduma hibridoa da, hainbat diziplinako lanak dituena (marrazketa, argazkia, pintura, eskultura, bideoa...), eta artisten intereseko gaiak ikusaraztea du helburu, artea beste jakintza-arlo batzuekin lotuz.

Erabiltzaileek obra horietako bat edo batzuk aukeratzen dituzte beren etxeetan, lantokietan edo ikasketetan mailegatu hartzeko. Maileguk 3 hilabeteko iraupena dute gutxienez, eta obrak Artotekako taldeak gainbegiratuta garraiatzen eta muntatzen dira.

Mailegu bakoitza aktibatuzeko, bitartekaritza-jarduerak diseinatzen dira, espazioaren eta erabiltzaileen eta artisten beharren eta interesen arabera. Horrela, artisten eta komunitateen arteko topaguneak sortzen dira, artelaren eta haien esanahien inguruan taldean gogoeta egiteko.

Lanean. Prozesu artistikoak laguntzeko programaren helburua da artelaren ekoizpena babestea, eta, horretarako, ikusleen komunitateetara hurbiltzea, dela egindako lanaren bidez, dela sormen-prozesuen bidez.

Mediateka BBK-k GureARTEan hezkuntza-programa antolatzen du **Artotekarekin** batera. Informazio gehiago: 68.or.

Kinu

Tractora Koop. E.

Tractora Koop. artisten kooperatibako **Usue Arrieta** eta **Ainara Elgoibar** **Kinu** proiektua garatzen ari dira Azkuna Zentroan, **Kolektibo egoiliarren programaren** barruan. **Kinu** artisten ikus-entzunezko produkzioak programatzeko, ikusteko eta eztabaidatzeko plataforma bat da. Hiru hilean behingo topagune bat, artista bat bere lana erakustera gonbidatzen duena, harekin batera lan-saio bat egiteko, praktika-mota horri eta haren berezitasunei buruz taldean gogoeta egiteko. Proiektuak hiru parte ditu:

Aurkezpen publikoa:

Hiru hilean behingo saioen hasieran, artista gonbidatuaren lana proiektatu eta jendaurrean aurkeztuko da, eta, ondoren, mahai-ingurua egingo da. **Kinu** proiektua **Kinu#1** saio pilotuarekin hasi zen, Elena Aitzkoa artistaren eskutik; irailean, AZko kolektibo egoiliarra zela, **Kinu#2** saioa izan zen, **Maddi Barber** gonbidatuarekin; azaroan **Kinu#3** saioa izan zen, **Sabine Groenewegen** zinema-gileari eskainia (Haga, 1985), eta **Kinu#4** saio bikoitza apirilaren 18an eta 25ean izango da, **Andrés Duque** gonbidatuarekin.

Lantaldea:

Aurkezpen publiko bakoitzaren ondoren, artistak zuzendutako saio bat egiten da lantalde egonkor batekin (**Lantaldea**). Talde horren dinamika gonbidatutako pertsona bakoitzaren neurria diseinatzen da. **Lantaldea#1** eta **Lantaldea#2** lan-saioek filmatzea izan zuten ardatz, eta ikus-entzunezko pieza bat izan zen emaitza. 16 mm-tan filmatutako pieza bat, kameran

muntatua, errebelatua eta saioa egindako egunean bertan proiektatua. **Lantaldea#3** saioak beste batzuen materialekin film bat egiteko ekintza izan zuen ardatz, eta **Sabine Groenewegen**ek emandako master class-etik abiatu zen.

Datorren apirilaren 17an eta 24an **Lantaldea#4** izango da, **Andrés Duque** zinema-gilearen zuzendaritzapean, eta Augusto Boalek inprobisazioa filmatzeko garatutako teknikak hartuko ditu abiaburu. Boalek 70eko hamarkadatik garatutako metodologiak -Zapalduaren Antzerkia deitu zuenak- ulertzen du errealitatea eraldatzen duena eraldatzeko ekintza bihurtzen dela.

Distirak:

Azkenik, proiektua osatzeko, lantaldea osatzen duen pertsona batek testu bat egiten du (**Distirak**), lantalde bakoitzaren esperientzia jasotzeko. Azkuna Zentroan egin zen lehen saioan, **Ander Pérez** ikus-entzunezko artistak egin zuen **Distirak#2** testua. **Distirak#3** **Pablo Marte** artistaren eskutik izan zen, eta **Leire Aranberri** (Bilbo, 1993) izango da **Distirak#4** testua egingo duena. UPV/ EHU-n Medikuntzan graduatu ondoren, Leire Indiara joan zen eta bertan Butoh dantza ezagutu zuen Subbody Butoh Schoolen. Orduetik, mugimendua inprobisaziotik aztertzen duten artistekin lan egiten du, besteak beste, Mal Pelo, Imre Thormann, Gio Ju eta Yumiko Yoshiokarekin.

Kinu Eusko Jaurilaritzaren Kultura eta Hizkuntza politika-sailarekin elkarlanean burutzen da.

Kolektibo Egoiliarrak programaren bidez, hurbileko kolektiboek laguntzen diegu, arte-hizkuntzekin eta kultura garaikidearekin egiten duten lanean, era eta ikuspegi askotatik, eta elkarrin arteko konplizitatea bultzatzen dugu kultura-programazioa antolatuzeko orduan.

Deialdiak eta egonaldiak 2021-2022

Sorkuntza artistikoari laguntzeko programa proiektuak sustatzeko hainbat deialdiren bidez egituratzen da, laguntzan, konplizitatean eta elkarrekiko itzuleran oinarritutako estrategia batekin.

Artistekin dugun harreman horrek aukera ematen digu sorkuntza-praktika partekatzeko, ekoizpen-prozesuan bestelako aldiak bultzatuz, eta bitartekari gisa jarduteko komunitate artistikoaren, kultura-eragile aktiboen eta gizartearen artean.

Gaur egun, hainbat programa daude martxan sorkuntzari laguntzeko, deialdi berriak egiten diren bitartean.



Ikusi oinarriak hemen:
azkunazentroa.eus



Babestu. Sorkuntza garaikidea babesteko programa

**Sorkuntza artistikoari laguntzeko
deialdia**

**2021eko martxoaren 15etik maiatzaren
31ra**

Lantegia. Ideien laborategia

Azkuna 2020an, Azkuna Zentroak **Babestu** programaren lehen deialdia egin zuen, sorkuntza garaikideari laguntzeko ezohiko programa gisa, Covid-19aren krisiak eragindako salbuespenezko egoerari erantzuteko. 2021ean, beharrezkotzat jo da sorkuntza artistikoa bultzatzen jarraitzea, eratze-prozesu horiek indartzea eta pertsonen beren proiektuak garatzen lagun egitea.

Kontua da sorkuntza eta kultura garaikidearen laguntza eta hedapena sustatzen saiatzea, esperientziak, ideiak eta ikuspegiak trukatzeko sustatuz, eta hurbileko sorkuntza-sarea dimentsio pluridiziplinarrean eta zeharkakoan bultzatuz.

Deialdi honen esparruan, Zentroaren programazio-ildoekin lotutako praktika artistikoen bost proiektu hautatuko dira, eta horietako batek idazketaren eta hitzaren gaia jorratu beharko du, eta Mediateka BBKrekin harremanetan jarri.

Horrez gain, Babestu programak artisten zerbitzura dagoen tresna bat izan nahi du, programazioarekin eta Zentroaren ekintza-ildoekin lotutako sormen-proiektuak gara ditzaten; eta bidea erraztu nahi die publiko-komunitateei hausnarketa artistiko garaikidera hurbiltzeko eta eztabaidak sortzeko, kultura eraldaketa-tresna gisa hartuta. Deialdiak baldintza horiek betetzen dituzten proiektuak lehenetsiko ditu hautaketan, azken pieza hainbeste nabarmendu ordez hura garatzeko prozesuan indarra jartzen dutenak.

Lantegia. Ideien laborategian kokatzen da Babestu, Zentroaren hirugarren eraikinean dagoen eta proiektu artistikoak ekoizten eta bistaratzen dituen gunean. Hautatutako pertsonen, Azkuna Zentroaren laguntzaz, aholkularitzaz eta bitartekaritzaz gain, 6.000 euro jasoko dituzte.

Komisario Berriak (KB)

2021eko martxoaren 15etik apirilaren 15era

Komisario Berriak (KB), proiektuak beste deialdi bat abiarazi du, komisariotzari laguntza ematen jarraitzeko, azken hamarkadetan Euskal Herriari lotutako praktika artistikoei erantzuten dieten proiektuak ikusaraziz.

Komisario Berriak (KB) Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Azkuna Zentroaren (Bilbo), Artiumen (Gasteiz) eta Tabakaleraren (Donostia) arteko lankidetzaren proiektua da, eta komisariotzaren praktika euskal testuinguruan garatzea eta profesional berriak sortzea du helburu. Proiektuan parte hartzen duen zentro bakoitzak lan-ildo berezia proposatzen du. Azkuna Zentroaren komisariotza-motak ikuskera artistiko bat zabal dezake, edozein erakusketa edo beste edozein gailu edo metodologia iragaitze-kapitulu gisa erabiltzeko, nahiz eta alde aurreko ikerketez eta ezagutzez blaituta egon.

Praktika artistikoen egonaldia

2021eko maiatzaren 31ra arte

Praktika artistikoen egonaldiak Kubako eta Euskadiko artisten arteko trukea sustatzen du, bi espazioetan ikerketa-aldi bat eginez, testuinguru artistiko desberdinetan eta bertakoetan ikerkuntza eta lana bultzatzeko asmoz. Deialdia Carlos Garaicoa estudioak Habanan duen **Artista x Artista** programarekin lankidetzan egiten da.

Dantza garaikidearen egonaldia

2022ko apirilera arte

Dantza garaikidearen egonaldia Dansateliers Rotterdam (Holanda) sorkuntza- eta erakusketa-zentroarekin lankidetzan egiten da. Egonaldi hau dantzako profesionalentzat da eta bi etapatan garatzen da. Lehenengoa Azkuna Zentroan, pieza koreografiko baten ikerketa eta sorkuntza prozesuan ardatzuta; eta bigarrena Rotterdamen, egoiliarak Dansateliersen taldearen aholkularitza eta mentoring artistikoa izango baitu han.

Lanean. Prozesu artistikoei laguntzeko programa

Etengabeko deialdia

Lanean programaren deialdia bereziki zuzenduta dago praktika artistikoak garatzeko forma berriak aztertzen dituzten artistei, sortzaileei, konpainiei eta kolektiboiei, betiere praktika horiek Zentroaren programazio-ildoen barruan badaude eta Zentroko zenbait publiko-komunitaterekin partekatzeko asmatu badira.

Deialdi honen bidez, diziplina desberdinei lotutako proiektu artistiko, kultural eta sortzaileak hautatuko dira, 2021eko bigarren sei hilekoan Azkuna Zentroko hainbat espaziotan garatzeko eta aurkezteko.



Fundación Banco Sabadellek Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko Egonaldi Artistikoen Programa babesten du, artea eta kultura sustatzeko eta hedatzeko duen programaren barruan.



Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko Egonaldi Artistikoen Programak Etxepare Institutuaren laguntza du.



Babestu. Sorkuntza garaikidea babesteko programa berria.

HEZKUNTZA PROGRAMA

Bitartekotzaren inguruan esperimentatzea eta prototipatzea

2021ean, aurrera ari gara 2019-2023 Programa Proiektua garatzen, kultura-bitartekaritza programazioaren zeharkako praktika gisa eta hausnarketa partekatuko prozesu gisa hartuta.

Helburua da pertsonen harreman aktiboa izan dezaten espazioarekin eta bertan gertatzen denarekin, eta hona hurbil daitezten hausnarketa, hizketa, eztabaida, ekintza... erabiliz. Arlo artistiko edo kultural hutsa gaindituz, eta artearen inguruko esperientzia berriei bide emanaz. Horregatik, programazioaren ideian bertan

txertatzen da bitartekaritza, eragileek, artistek eta kolektibo konplizeek publikoaren komunitate guztiekin eta jarduera guztietan hizketan. Eta beti tokiko eta nazioarteko ikuspegitik.

Horretarako, esperimantazio- eta prototipatze-prozesu bat hasi da, hezkuntza artistikoan eta kultura-bitartekaritzan ardaztutako diziplina anitzeko bi kooperatibarekin lankidetzan -**Artaziak** eta **Tipi Gara**-, eraldaketa sozialean aritzen baitira kultura-bitartekaritzaren esparruan.

Artaziak

Artaziak kooperatibak ikerketa bat egingo du Azkuna Zentroak bitartekaritza-lana modu kontzienteagoan, kokatuagoan, eraldatzaileagoan eta bere programa-proiektuarekin bat etorritz egiten jarraitzeko dauden aukerei, potentzialtasunei eta aukerei buruz.

Proiektuak fase hauek ditu: Alde batetik, diagnostiko sakona egingo da, esparru teoriko zehatz batetik abiatuta, Azkuna Zentroari eta inguruneko beste eragile inspiratzaile batzuei begira. Bestalde, zenbait ondorio, indar-ideia eta helburu landuko dira, funtsezko ekintza-ildoak markatzeko. Azkenik, txosten baten bidez, Zentroarekin lankidetzan aukeratutako ekintza horien hautaketa jasoko da. Artaziak eta Azkuna Zentroak partekatuko dute tresna hori, egiten ari den lana zabaltzen jarraitzeko.

ARTAZIAK izaera sozialeko proiektua da; kultura-dibertsitatetik eta desberdintasunetik abiatzen da, eta pertsonengan zentzu kritikoa sustatzen laguntzen du, aldaketa sozialak, politikoak eta kulturalak sortzeko.

Tipi Gara

Inventario del rellano

Inventario del rellano Tipi Gara kooperatibak garatutako bitartekaritza-proiektua da. Parte hartzeko esplorazio batetik abiatzen da, entzuteko eta testuingurura hurbiltzeko beste modu batzuk aktibatzeko, inbentario multisentsorial kolektibo bat sortuz; beste kontakizun batzuk egiteko gonbita da, itxuraz hutsala denaren, oharkabean dagoenaren eta ikusten ez denaren inbentariotik abiatuta.

Testuinguru horretan, hainbat tailer jarri ditu abian **Tipi Garak**, eta hiruhileko honetan egingo dira, espedizioaren bidez Inventario del rellano proiektuan lan egiteko. Pasiera edo deribaren logikatik, espaziotik ibili eta harekin erlacionatetik abiatuta, gorputza eta arreta beste gauza eta modu batzuetan jarrita, zentzumenen bidez ikusezinari erreparatzea da asmoa: entzumenena, usaimena eta ukimena erabiliz.

Parte-hartzaileek beste tresna eta estrategia batzuk erabiliko dituzte, orain arte oharkabean igaro diren objektuak, pertsonak, landareak, soinuak edo materialak identifikatzeko. «Poliki ibiliko gara. Geure buruari galdetuko diogu: Zer gertatzen da inguruan? Zein zuhaitzetakoak dira lurrean aurkitzen ditugun hostoak? Noiztik daude hemen? Nondik dator eraikin hau altxatzen duen harria? Eta kafe-usaina? Zein da haren historia? Zer elkarriketa atzematen ditugu pasieran?», azaltzen dute **Tipi Gara** kooperatibakoek.

Hala, jarduera hasteko, ibilbide multisentsoriala egingo da informazioa biltzeko, eta, ondoren, bilera bat izango da bateratzeko eta hausnartzeko. Parte hartzen duten guztien artean, forma eta gorputza emango zaio inbentarioari, eta erakusketa eta kontakizun ireki bihurtuko da. Horrela, erakusketa izango da inbentarioa fisiko bilakatuko duen gailua, mahai gainean jarriko duena eta eguneroko testuinguruaren beste kontakizun bat egituratuko duena.

PROGRAMA:

Apirilak 13, asteartea
18:00 - 20:15
Inventario del rellano. Oir

Maiatzak 6, osteguna
18:00 - 20:15
Inventario del rellano. Oler

Ekainak 10, osteguna
18:00 - 20:15
Inventario del rellano. Tocar

Ekainak 24, osteguna
18:00 - 20:15
Sorkuntza kolektiboko saioa

Lantegia 1
Sarrera dohainik izen-ematearekin azkunuzentroa.eus webgunean

TIPi. Tipin eraldaketa bultzatzen dute, komunitate autonomoagoak sortuz, beren etorkizuna eratzeke gai direnak. Horregatik, modu parte-hartzailean lan egiten dute – behetik gorako logikatik –, ideia, metodologia eta egiteko modu berriak erabiliz. Ikertu, beste batzuekin nahastu eta espermentatu egiten dute, gure eguneroko bizitza eraldatu eta gure oraina hobetzeko irtenbideak sortzeko

HEZKUNTZA PROGRAMA / ARTE BISUALAK

Gure ARTEan

Tailerrak

Mediateka BBK-k Gure ARTEan proiektua jarri du abian, Txikiteka eta Artotekako -Galeria Mediatekan dagoen hedapen eta bitartekaritza artistikorako plataforma-erabiltzaileen artean arte garaikidera hurbiltzea sustatzen duen jarduerara.

6 eta 12 urte bitarteko publiko-komunitateei zuzenduta, Gure ARTEan ikaskuntza kooperatiborako eta pentsamendu kritikoa sustatzeko plataforma bat da, euskal testuinguruko artisten lana zabaldu eta ikusarazi nahi duena, ikaskuntzen trukearen bidez. Proiektu honen helburua da haurtzaro kritikoa, sortzailea eta parte-hartzailea eraikitzen laguntzea, hezkuntza ez-formaleko ekintzen eta jarduerara artistikoen bidez.

////////////////////////////////////

Martxoak 12 > Apirilak 10

6-12 urte

Txikiteka. Mediateka BBK

Hizkuntza: euskara eta gaztelaina

Sarrera dohainik gonbidapenarekin (jaso Az infon), leku guztiak bete arte

////////////////////////////////////



HEZKUNTZA-PROGRAMA / MUSIKA ESPERIMENTALA

Rafael Martínez del Pozo

Tailerra: *Escuchando, hacia una música anterior a sí misma*

Hotsetan. Azkuna Zentroaren musika esperimentaleko eta soinu-arteko programa

Rafael Martínez del Pozo musikariak *Escuchando, hacia una música anterior a sí misma* tailerra emango du ekainaren 11tik 13ra, Hotsetan, Musika eta soinu esperimentaleko programaren barruan. Topaketa horretan, testu-ariketa eta -argibide batzuen bidez, parte-hartzaileek soinua duten formak sortuko dituzte, ezagutu daitekeenetik erdi-musika partekatura, gorputz arrotzak ekartzeko ekosistema gisa ulertutako musikara.

Proiektuak jarraipena ematen dio artistak 2017an berriro abiarazi zuen ikerketa-lanari, zeinak Sesiones de Protomúsica behin-behineko izena zuen. Musikariak azaldu duenez, «hainbat pertsonaren artean egingo dugu musika. Musika: Leku batean, aldi baterako iraupen bat, non entzunezko egoera bat partekatzen dugun eta soinuak sortzen esku har dezakegun (edo ez). Gu ikustea ere bada, mugitzea... Bi arau errespetatzen ditugu: Lehenik eta behin, parte-hartzaile guztiak entzun ahal izatea, bakarka sortzen duten soinuaren anplitudea edozein dela ere. Bigarrena, gainerako parte-hartzaileek egiten duten soinuak ez baldintzatzea».

////////////////////////////////////

Ekainak 11 > 13
Ostilara > Igandea

Lantegia 1

Informazio gehiago:
azkunazentroa.eus

////////////////////////////////////

HEZKUNTZA PROGRAMA / LITERATURA

Txakur Gorria

Tailerra: *Huts egite saiakerak*

Txakur Gorria Malen Amenabar, Mariñe Arboe, Nerea Ibarzabal eta Ane Labakak osatzen duten talde sortzailea da. Hamalau urtetik gorako ikasleei zuzendutako Huts egite saiakerak izeneko parte-hartzeko tailerra aurkeztuko dute.

Literatura-generotik harantz, sormenerako bitarteko eraginkor gisa hartzen dute saiakera. Aldizka probatu, huts egin eta berriro saiatu. Hori da tailerlean landuko den ideietako bat.

Huts egite saiakerak tailerrak ahalik eta modurik askeenean garatu nahi du sormena, banakako eta taldeko dinamiken bidez, irudiaren eta hitzaren autorretratua sortzeko.

////////////////////////////////////

Apirilak 29, osteguna

Lantegia 1

Hezkuntza: euskara

Ikastetxeekin hitzartua

////////////////////////////////////

HEZKUNTZA PROGRAMA / ARTE BISUALAK

Josune Urrutia Asua

Tailerra: *Así me veo*

Josune Urrutia Asua artistak *Así me veo (Honela ikusten dut neure burua)* tailerra emango du, *Fatxada* Proiektua. Diseinua, ilustrazioa eta komikia-ren esparruan. Izenburu bera duen liburutik abiatuta, autorretratuari ekitea proposatzen du, nor bere burua ezagutzeko prozesu gisa, eta marrazkiaren bidez nor bere burua begiratzeko esperientzia bizitzea. Horretarako, artistak azaltzen duenez, «beharrezkoa da nor bere buruari baimena ematea prozesu honetan esperimentatzeko, jolasteko, aurkitzeko eta harritzeko».

Así me veo proposamenak gonbit egiten du autorretratuaren ideari buruzko behaketari, azterketari, gogoetari eta ekintzari ekiteko. «Lehen pertsonan egindako ikerketa- eta esperimentazio-prozesu sakon baten emaitza ere bada. John Berger-ek dioenez, 'Marraztea ez da soilik paperean neurtzea eta jartzea, jasotzea ere bai baita. (...) Marraztutako irudiak begiratzeko esperientzia biltzen du'», azaltzen du artistak.

Tailerra mota guztietako jendeari zuzenduta dago, eta ez da beharrezkoa marrazkiei buruz ezer jakitea tailer honetan parte hartzeko.

Erabili Bilbao Bonua edo/
eta Kultura Bizkaia Aurrera
Bonua Az Infon sarrerak
erosteko

////////////////////////////////////

Maiatzak 24 eta 25

Astelehena eta asteartea

17:30 - 19:30

Mediateka BBK. TK202

30€ / 25€ Az Txartelarekin

Izen-ematea Az Infon eta
azkunazentroa.eus

////////////////////////////////////


 josuneurrutia.com

 [josune](https://www.instagram.com/josune)

  [@mirardibujando](https://twitter.com/mirardibujando)

////////////////////////////////////

bbk 



Azkuna Zentroa argitalpenak

Azkuna Zentroaren argitalpenen corpusak arte-praktika garaikidea biltzen du, ezagutzeko eta zabaltzeko. Zentroko programazio-lerroen inguruko erakusketen, saiakeren eta liburuen katalogoek osatzen dute.

Datozen argitalpenak:



ISBN: 978-84-120368-9-3 / 2021
Orrialdeak 207
Formatua: 190 x 140 mm
Enkoadernazioa: Rustikoa, josita
PVP: 18€

Saiakera hemen hasten da

Caniche argitaletxea

2020an, Gutun Zuria. Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdia ezin izan zen aurreikusita zegoen bezala egin. Pandemiak eragotzi zuen *Saiakera hemen hasten da* izenburupean aurreikusitako topaketa egitea.

Jaialdiak saiakerari heldu nahi zion, genero literario gisa duen izaeraz harago joz, prozesu kultural gisa aztertuz. Eta saiakera berrasmateza ere badenez, ahozko eta aurrez aurreko saiakera hori idatzizko saiakera izatera pasa zen, aurrez grabatua.

Horrela, Gutun Zuria 2020 *Saiakera hemen hasten da* liburua bilakatu zen: artikuluaren antologia bat, non, hitzaldietan eta eztabaidetan egingo zuten bezala, egile gonbidatuek gogoetak proposatzen baitituzte egungo errealitateari buruz, belaunaldi-, ideologia- edo geografia-antiztasunetik begiratuta.



ISBN: 978-84-09-22865-2 / 2021
Orrialdeak: 400
Formatua: 220 x 270 mm
Enkoadernazioa: Tapa biguna;
Cartoné Kromoa hariz josita
PVP: 28€

Mabi Revuelta. Akromatikoa. Partida Hilezkorra

Mabi Revuelta artistaren *Akromatikoa. Partida Hilezkorra* erakusketaren katalogoa. Susana Blasek komisariatutako eta Azkuna Zentroak (2020ko urriaren 14tik 2021eko urtarrilaren 24ra) eta Madrileko Tabacalera Promoción del Artek (2021) elkarrekin ekoiztitako erakusketa. Proiektuak artistaren ibilbidea berrikusten du eta, aldi berean, Akromatikoa bere azken lana aurkezten du. Katalogoak Susana Blas, Luis Francisco Pérez eta Antonio Gudereren testuen bidez osatzen du proiektua.



ISBN: 978-84-451-3832-8
Formatua: 230 x 167 mm
Orrialdeak: 323
Euskara / gaztelania / ingelesa
PVP: 20 €

Kontzertu guztiak, gau guztiak, dena hutsik

Kontzertu guztiak, gau guztiak, dena hutsik

erakusketaren katalogoa. Ana Laura Aláez artistaren erakusketa, Bea Espejok komisariatua eta Azkuna Zentroaren (2021eko maiatzaren 20tik irailaren 26ra) eta Dos de Mayo Arte Zentroaren (CA2M) artean ekoitzia (2019ko azaroaren 8tik 2020ko urtarrilaren 26ra). Erakusketan Ana Laura Aláezen azkenaldiko lanetako batzuk agertzen dira, haren ibilbidearen hasierako beste batzuekin eragin-trukean. Katalogoak artistaren lana kokatzen duten oinarritzko testuak ditu, honako hauek eginak: Bea Espejo, Sonia Fernández Pan, María José Belver, Ángel Bados, Paul B. Preciado eta Ana Laura Aláez.



ISBN: 978-84-09-25366-1
Orrialdeak: 147
Formatua: 165 x 240 mm
Enkoadernazioa: Tapa rustikoa
PVP: 19€

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao. Ardoen biltegitik Gizarte eta Kultura Garaikideko Zentrora

Bilbok beste alondegri batzuk izan zituen, zerbitzu guztiak eraikin berean zentralizatu aurretik 1909tik aurrera. Ikerketa-liburu honek barnean biltzen du ehun urtetik gorako bizitza gorabeheratsu eta interesgarri hori, Mikel Bilbao Salsidua eta Arantxa Pereda Angulo arte-historialariak aztertu dutena.

Horrez gain...



Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa
Katalogo / Liburua



Ikuspegi feministak produkzio artistikoan eta arte teoretan ikastaroaren 11. edizioa



Angela de la Cruz. Homeless
Katalogo / Liburua



Azkuna Zentroa argitalpenak [dendAZ](#). Azkuna Zentroaren Saltokian eta [dendaz.azkunazentroa.eus-en](#) erosi ditzakezu

ERAKUSKETAK

ERAKUSKETA ARETOA

URRIAREN 14TIK APIRILAREN 11RA

Mabi Revuelta

Akromatikoa. Partida Hilezkorra

MAIATZAREN 20TIK IRAILAREN 26RA

Ana Laura Aláez

Kontzertu guztiak, gau guztiak, dena hutsik

URRIAREN 28TIK OTSAILAREN 27RA

Roma Akademia

BAT ESPAZIOA. LANTEGIA, IDEIEN LABORATEGIA

APIRILAREN 22TIK UZTAILAREN 4RA

Elena Aitzkoa

Lendia song

ONDOREN

Irati Inoriza

*Nadie se baña dos veces en el mismo río,
sino en el pantano mismo*

URRIAREN 28TIK OTSAILAREN 27RA

Roma Akademia

GALERIA MEDIATEKA BBK

URTARRILAREN 20TIK APIRILAREN 11RA

Artoteka

MAIATZAREN 27TIK IRAILAREN 26RA

Miriam Isasi

Resina, brea y glicerina

URRIAREN 28TIK OTSAILAREN 27RA

Roma Akademia



Mabi Revuelta. Acromática. Una Partida Inmortal.

dendAZ. THIS IS BASQUE DESIGN

AZKUNA ZENTROKO DENDA

dendaz.azkunazentroa.eus

dendAZ online:
diseinurako eta
artisautzarako
leiho irekia,
iraunkortasunarekin
konprometitua



dendAZ. *This is Basque Design*, Azkuna Zentroaren denda, Kulturen Atarian kokatutako show room dinamikoa eta bizia da. Bertan, produktu eksklusiboak aurkitu daitezke, iraunkortasunarekin konprometituta dauden bertako hogeita hamar artistak, sortzaileak eta artisauak eginak.

Sorta zabala da: moda eta papergintza, liburuak eta jostailuak, bitxiak, osagarriak edo dekorazioa eta kultura-artikuluen aukera zabala. Zentroko kultura-programazioarekin lotutako arte-katalogoak eta liburuak ere erosi daitezke, baita bertako hornitzaileek egindako merchandising korporatiboak ere.

dendAZ. *This is Basque Design* lineako dendan zabaltzen da (dendaz.azkunazentroa.eus). Diseinura irekitako leiho bat, erosketa-esperientzia gisa, proiektu honen bereizgarriak eusten diona: bertako talentuaren ikusgarritasuna. Horrela, edozein lekutatik eta edozein unetan erosi daitezke Zentroko produktu asko eta argitalpen guztiak, bai eta dendAZ komunitatea osatzen duten profesionalen lana ezagutu ere.

dendAZ. *This is Basque Design*, eremu birtualean, Homo Faber Guide-ra (www.homofaberguide.com) hedatuko da datozen hilabeteetan. Europa osoko profesionalen, museoen, galerien eta dendan alpamenak biltzen dituen gida digitala

da, eta esperientzia-ibilbide bat sortu du artisautzaren eta diseinuaren inguruan

Abana Bilbao, Tytti Thusberg eta Ekomodo batu dira dendAZ komunitatera

Hiruhileko honetan, hiru proiektu batu dira *dendAZ. This is Basque Design* komunitatera. Hainbat produkturen ingurukoak dira, baina diseinuaren bidez jasagarritasuna lortzeko interesa batzen ditu.

Abana Bilbao -Lucas abajo eta **Laxmi Nazabal**- altzari garaikideen editorea da, eta berezko nortasuna duten altzariak eta osagarriak diseinatzen eta fabrikatzen ditu, bertako materialetan eta estilo atlantikoan inspiratuta. **Tytti Thusberg**ek, Donostian bizi den artista eta diseinatzaile finlandiarra, emozio iraunkorrak proposatzen ditu moda ekologikoko diseinuen bidez. Azkenik, **Ekorec** Europako enpresa industrial bakarra da, birziklatzeaz gain, produktu propio bilakatzen du, eguneroko produktu bihurtzen ditu ehunak.

Hirurek aurkeztuko dituzte beren proposamenak hiruhileko honetan, apirillean eta ekainean egingo den **Euskal Diseinuaz** programaren barruan.

Informazio gehiago: 28 eta 29 orri.

AGENDA

AGENDA / APIRILA

APIRILAK 11 ARTE (2020ko urriaren 14 tik)			+INFO
Ordutegia kontsultatu	Mabi Revuelta <i>Acromática. Una Partida Inmortal</i>	ARTE BISUALAK/ ERAKUSKETA	18. orr.

APIRILAK 3/ Larunbata			+INFO
12:00	Gure ARTEan Tailerra: <i>Todas las mañanas del mundo. The new world</i>	HEZKUNTZA PROGRAMA / ARTE BIZIAK	68. orr.

APIRILAK 7 ETA 8 / Asteazkena eta osteguna			+INFO
Ordutegia kontsultatu	Bilbao Aurrera Zinebi 2020 Hautatutako proiektuen aurkezpena	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOAK	49. orr.

APIRILAK 9 / Ostirala			+INFO
17:00	Gure ARTEan Tailerra: <i>Montes Bocineros. Naturako ahotsak</i>	HEZKUNTZA PROGRAMA / ARTE BIZIAK	68. orr.

APIRILAK 10 / Larunbata			+INFO
12:00	Gure ARTEan Tailerra: <i>Creando seres imaginarios: BuruBuru</i>	HEZKUNTZA PROGRAMA / ARTE BIZIAK	68. orr.

APIRILAK 13 / Asteartea			+INFO
17:00	Tipi Gara Tailerra: <i>Inventario del rellano. Oir</i>	HEZKUNTZA PROGRAMA	67. orr.

APIRILAK 14 / Asteazkena			+INFO
17:00	Luis García Berlanga, XX. mendeko kronista <i>Esa pareja feliz (1953) Bikote Zoriontsu Hori</i>	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOA / ZINEMATEKA	42. orr.



APIRILAK 15 / Osteguna +INFO

19:00	Oscar Gómez Mata-L'Alakran Juan Loriente-rekin <i>Makers</i>	ARTE BIZIAK / ANTZERKIA	32. orr.
19:00	Luis García Berlanga, XX. mendeko kronista <i>Esa pareja feliz (1953) Bikote Zoriontsu Hori</i>	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	42. orr.

APIRILAK 16 / Ostirala +INFO

19:00	Oscar Gómez Mata-L'Alakran Juan Loriente-rekin <i>Makers</i>	ARTE BIZIAK / ANTZERKIA	32. orr.
-------	---	----------------------------	----------

APIRILAK 18 / Igandea +INFO

12:00	Kinu #4: Andrés Duque <i>Ensayo final para utopía (2012)</i>	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOAK	44. orr.
-------	---	----------------------------------	----------

APIRILAREN 22TIK UZTAILAREN 4RA +INFO

Ordutegia kontsultatu	Elena Aitzkoa <i>Lendia Song</i>	ARTE BIZIAK / ERAKUSKETA	22. orr.
--------------------------	-------------------------------------	-----------------------------	----------

APIRILAK 21 / Asteazkena +INFO

17:00	Luis García Berlanga, XX. mendeko kronista <i>Bienvenido Mr Marshall (1953) Ongietorri Marshall Jauna</i>	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	42. orr.
-------	--	--	----------

APIRILAK 22 / Osteguna +INFO

18:30	Abad Diseño, Tytti Thusberg eta Ekomodo <i>Diseinua eta ekonomia zirkularra</i>	DENDAZ THIS IS BASQUE DESIGN / DISEINUA	24. orr.
17:00	Luis García Berlanga, XX. mendeko kronista <i>Bienvenido Mr Marshall (1953) Ongietorri Marshall Jauna</i>	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	42. orr.

APIRILAK 25 / Igandea +INFO

12:00	Kinu #4: Andrés Duque <i>Carelia: Internacional con monumento (2019)</i>	PROIEKZIOAK	44. orr.
-------	---	-------------	----------

AGENDA / APIRILA

APIRILAK 28 / Asteazkena			+INFO
17:00	Luis García Berlanga, XX. mendeko kronista <i>Calabuch (1956)</i>	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOA / ZINEMATEKA	42. orr.
19:00	Eraeran + Radithor + Alvin Lucier-en <i>In Memoriam Jon Higing</i> + Testura Kontzertua	ARTE BIZIAK / MUSIKA ESPERIMENTALA	36. orr.

APIRILAK 29 / Osteguna			+INFO
Ordutegia kontsultatu	Txakur Gorria Tailerra: <i>Huts egite saiakerak</i> Ikastetxeekin hitzartua	HEZKUNTZA PROGRAMA / LITERATURA	69. orr.
19:00	Luis García Berlanga, XX. mendeko kronista <i>Calabuch (1956)</i>	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOA / ZINEMATEKA	42. orr.

AGENDA / MAIATZA

MAIATZAK 5 / Asteazkena			+INFO
17:00	Luis García Berlanga, XX. mendeko kronista <i>Los jueves, milagro (1957) Ostegunetan, Miraria</i>	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOA / ZINEMATEKA	42. orr.

MAIATZAK 6 / Osteguna			+INFO
17:00	Tipi Gara Tailerra: <i>Inventario del rellano. Oler</i>	HEZKUNTZA PROGRAMA	67. orr.
19:00h	Luis García Berlanga, XX. mendeko kronista <i>Los jueves, milagro (1957) Ostegunetan, Miraria</i>	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOA / ZINEMATEKA	42. orr.

AGENDA / MAIATZA



MAIATZAREN 7TIK 14RA

+INFO

Ordutegia kontsultatu	FANT. Bilboko Zinemaldi Fantastikoa	ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK	48. orr.
-----------------------	-------------------------------------	------------------------------	----------

MAIATZAK 12 / Asteazkena

+INFO

17:00	Luis García Berlanga, XX. mendeko kronista <i>Plácido (1961)</i>	ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	42. orr.
-------	---	---	----------

MAIATZAK 13 / Ostirala

+INFO

Ordutegia kontsultatu	Aimar Arriola Pablo Marterekin elkarrizketan <i>Forma desira</i>	ARTE BISUALAK / TOPAKETA	28. orr.
19:00	Luis García Berlanga, XX. mendeko kronista <i>Plácido (1961)</i>	ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	42. orr.

MAIATZAREN 17TIK 21ERA

+INFO

Ordutegia kontsultatu	Zinemagileen artean. Emakumeek egindako zinemaren 10. karabana	ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK	48. orr.
-----------------------	--	------------------------------	----------

MAIATZAK 19 / Asteazkena

+INFO

17:00	Luis García Berlanga, XX. mendeko kronista <i>El verdugo (1963) Borreroa</i>	ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	42. orr.
-------	---	---	----------

MAIATZAK 20 / Ostirala

+INFO

19:00	Luis García Berlanga, XX. mendeko kronista <i>El verdugo (1963) Borreroa</i>	ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	42. orr.
-------	---	---	----------

MAIATZAREN 20TIK IRAILAREN 26RA

+INFO

Ordutegia kontsultatu	Ana Laura Aláez <i>Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío</i>	ARTE BISUALAK / ERAKUSKETA	20. orr.
-----------------------	--	----------------------------	----------

AGENDA / MAIATZA

MAIATZAK 24 / Astelehena

[+INFO](#)

17:30	Josune Urrutia Asua Tailerra: <i>Así me veo</i>	HEZKUNTZA PROGRAMA / ARTE BISUALAK	69. orr.
-------	--	--	----------

MAIATZAK 25 / Asteartea

[+INFO](#)

17:30	Josune Urrutia Asua Tailerra: <i>Así me veo</i>	HEZKUNTZA PROGRAMA / ARTE BISUALAK	69. orr.
-------	--	--	----------

MAIATZAK 26 / Asteazkena

[+INFO](#)

17:00	Luis García Berlanga, XX. mendeko kronista <i>La escopeta nacional (1978) Eskopeta Nazionalea</i>	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	43. orr.
-------	--	--	----------

MAIATZAK 27 / Osteguna

[+INFO](#)

19:00	Luis García Berlanga, XX. mendeko kronista <i>La escopeta nacional (1978) Eskopeta Nazionalea</i>	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	43. orr.
-------	--	--	----------

APIRILAREN 22TIK UZTAILAREN 4RA

[+INFO](#)

Orduetgia kontsultatu	Elena Aitzkoa <i>Lendia Song</i>	ARTE BISUALAK / ERAKUSKETA	26. orr.
--------------------------	-------------------------------------	-------------------------------	----------



EKAINAK 2 / Asteazkena			+INFO
16:30	Luis García Berlanga, XX. mendeko kronista <i>Patrimonio nacional (1981) Ondare Nazionalea</i>	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	43. orr.
EKAINAK 3/ Osteguna			+INFO
19:00	Luis García Berlanga, XX. mendeko kronista <i>Patrimonio nacional (1981) Ondare Nazionalea</i>	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	43. orr.
EKAINAK 8 / Asteartea			+INFO
18:30	Abana Bilbao, Elena Ciordia eta MR Laspiur <i>Estilo bat sortzeko inspirazioak</i>	DENDAZ THIS IS BASQUE DESIGN / DISEINUA	29. orr.
EKAINAK 9 / Asteazkena			+INFO
16:30	Luis García Berlanga, XX. mendeko kronista <i>La vaquilla (1985) Bigantxa</i>	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	47. orr.
EKAINAK 10 / Osteguna			+INFO
17:00	Tipi Gara Tailerra: <i>Inventario del rellano. Tocar</i>	HEZKUNTZA PROGRAMA	70. orr.
18:55	Luis García Berlanga, XX. mendeko kronista <i>La vaquilla (1985) Bigantxa</i>	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	47. orr.
EKAINAK 11 / Ostirala			+INFO
Ordutegia kontsultatu	Rafael Martínez del Pozo Tailerra: <i>Escuchando, hacia una música anterior a sí misma</i>	HEZKUNTZA PROGRAMA / MUSIKA ESPERIMENTALA	68. orr.



EKAINAK 12 / Larunbata

+INFO

Ordutegia kontsultatu	Rafael Martínez del Pozo Tailerra: <i>Escuchando, hacia una música anterior a sí misma</i>	HEZKUNTZA PROGRAMA / MUSIKA ESPERIMENTALA	68. orr.
--------------------------	---	---	----------

EKAINAK 13 / Igandea

+INFO

Ordutegia kontsultatu	Rafael Martínez del Pozo Tailerra: <i>Escuchando, hacia una música anterior a sí misma</i>	HEZKUNTZA PROGRAMA / MUSIKA ESPERIMENTALA	68. orr.
--------------------------	---	---	----------

EKAINAK 16 / Asteazkena

+INFO

19:00	Luis García Berlanga, XX. mendeko kronista <i>Todos a la cárcel (1993) Denok kartzelara</i>	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	43. orr.
-------	--	--	----------

EKAINAK 17 / Osteguna

+INFO

Ordutegia kontsultatu	Laida Lertxundi <i>8 Topaketa</i>	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOAK	46. orr.
19:00h	Luis García Berlanga, XX. mendeko kronista <i>Todos a la cárcel (1993) Denok kartzelara</i>	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	43. orr.

EKAINAK 18 / Ostirala

+INFO

Ordutegia kontsultatu	Laida Lertxundi <i>8 Topaketa</i>	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOAK	46. orr.
--------------------------	--------------------------------------	----------------------------------	----------

EKAINAK 24 / Osteguna

+INFO

17:00h	Tipi Gara <i>Sorkuntza kolektiboko saioa</i>	HEZKUNTZA PROGRAMA	66. orr.
19:00h	MDV Danza <i>Aireko arkitektoak (Alhóndiga)</i>	ARTE BIZIAK / DANTZA	34. orr.

INFORMAZIO OROKORRA

ZENTROAREN ORDUTEGIA ALARMA-EGOERAN

Egunero 9:00etatik 21:00etara.

BISITA GIDATUAK

Bisita gidatuen programaren bidez, Alhóndigaren historiaren eta haren eraldaketaren berri jakin daiteke, bai eta Zentroan dagoen kultura-programazioa ere.

BANAKAKO BISITAK:

Astelehena eta asteartea (gaztelaniaz), 19:00

Osteguna (euskaraz), 19:00

Bisita dohainik da, 30 minutuko iraupena du, eta gutxienez 3 eta gehienez 6 lagun* behar dira egin ahal izateko.

TALDEKAKO BISITAK:

Bisita taldeka egin nahi baduzu (gehienez 6 lagun*), asteko edozein egunetan egin dezakezu erreserba, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 19:00etara. Prezioa 50€koa da (25€ elkarteentzat).

Informazioa eta erreserbak, gutxienez 48 ordu lehenago: Az Infon eta 944 014 014 telefonoan, edo info@azkunazentroa.eus posta elektronikokoan.

*Bisita bakoitzeko pertsona-kopurua aldatu egin daiteke pandemia kontrolatzeko une bakoitzean hartzen diren neurrien arabera. Informazio gehiago: azkunazentroa.eus

Az TXARTELA

Az Txartelak aukera ematen dizu kultura, gizarte eta ariketa fisikoko jarduerak biltzen dituen eskaintza zabalaz gozatzeko gure zentroan. Zentroko Txartelarekin, jarduera guztien inguruko informazioa jasoko duzu aldizka, eta deskontu eta abantaila interesgarriak lortuko dituzu. Txartela emateak eta behar denean berritzeak 3 euroko kostua du.

Gogoan izan Az txartela pertsonala eta besterenezina dela. Zurekin ekarri behar duzu beti, Az Infon sarrerak erosterakoan deskontuak izateko.

Irisgarritasuna

Azkuna Zentroa errespetuzko gunea da, irekia eta guztientzat irisgarria. Espazioa eta programazioa etengabe hobetzeko lan egiten dugu, publiko-komunitate guztiek esperientzia gogobetzekoa izan dezaten, sorkuntza-prozesuetan parte hartu ahal izan dezaten eta kultura baldintza berdinetan probatu, partekatu eta gozatu ahal izan dezaten. Xehetasun bereziren bat kontsultatu nahi baduzu, zatoz AzInfora, Atarian dagoen informazio-gunera.

GOLEM ALHÓNDIGA ZINEMAK

Informazioa eguneratua kontsulta ezazu golem.es webgunean.

Yandiola, The Boar, Hola Bar

Informazioa eguneratua kontsulta ezazu yandiola.com webgunean.

AZKUNA ZENTROA, GUNE SEGURUA

Azkuna Zentroak **Bureau Veritas-en Global Safe Site ziurtagiria** du, zeinak bermatzen baitu behar bezala betetzen direla Osasunaren Mundu Erakundeak (OMEk), Osasun Ministerioak eta beste osasun-agintari batzuek COVID-19ari aurre egiteko ezarritako segurtasun-neurriak, garbiketa-protokoloak eta babes pertsonaleko eta antolakuntzako neurriak. Gainera, Zentroko langileek berariazko prestakuntza- eta kontzientziazio-plana bete dute COVID-19aren prebentzioari dagokionez, eta, horren bidez, Azkuna Zentroak indartu dezake ezarritako osasun-neurrien betetze-maila.

Gogoan izan:



Zure maskara erabili



Distantzia mantendu



Espazioetara sartu baina lehen eta irteterakoan



Ez ukitu aurpegia



Ez ukitu azalera komunak. Egiten baduzu, garbitu eskuak



Erabili bakarrik beharrezkoa bada eta adierazitako edukieria errespetatuz



Ordaintzeko, txartelarekin hobe

Informazio osoa kontsulta ezazu:

